MUSIKA

Haizea FERNANDEZ DE MUNIAIN LOMILLOS

5 urteko haurrekin lantzeko hezkuntza proposamena: kontzertu didaktikoak/ Propuesta educativa para trabajar con niños de 5 años: los conciertos didácticos

TFG/*GBL* 2014

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro de Educación Infantil

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

5 URTEKO HAURREKIN LANTZEKO HEZKUNTZA PROPOSAMENA: KONTZERTU DIDAKTIKOAK/ PROPUESTA EDUCATIVA PARA TRABAJAR CON NIÑOS DE 5 AÑOS: LOS CONCIERTOS DIDÁCTICOS

Haizea FERNANDEZ DE MUNIAIN LOMILLOS

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante
Haizea FERNANDEZ DE MUNIAIN LOMILLOS

Izenburua / Título
5 urteko haurrekin lantzeko hezkuntza proposamena: kontzertu didaktikoak/ Propuesta educativa para trabajar con niños de 5 años: los conciertos didácticos

Gradu / Grado
Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a
Alejandro MARTÍNEZ ARANA

Saila / Departamento
Psikologia eta pedagogia / Psicología y pedagogía

Ikasturte akademikoa / Curso académico
2013/2014

Seihilekoa / Semestre
Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute […] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagokikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta dizplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua, graduko lau urteetan jasotako formakuntza ardatz izanik, hezkuntza-gai ezberdinetan oinarrituz lana garatzen da. Barneratutako eduki ezberdinak kontuan hartuz, lana arlo teorikotik arlo praktikora bideratua egonen da, lau urte hauetako oinarrizko prestakuntzetan egin dugun bezala. Hauxe, lanaren atal teorikoan aurkituko dugu, hezkuntza musikalean zentratuko dena. Bidenabar, atal praktikoan hezkuntza proposamena eginen da, aldez aurretik aipatutakoan oinarrituz.

Didaktika eta diziplinako moduluak bide eman digu hezkuntzaren diziplina ezberdinak ezagutzeko, eta diziplina horietatik zer ikas daitekeen jakiteko eta konprobatzeko. Beraz, musikaren diziplinatik ikasitakoa lan honetan islatuko da. Aipatzeko, Pedagogia Terapeutikoko aipamena egin dudan arren, proposatuko diren jarduerak manipulatzeko, entzuteko eta ikusteko bideratuak izanen direla. Zentzumenen bidez ikasteak hezkuntza premia bereziak dituzten haurrentzat ikaskuntza esanguratsuago bilakatzea suposatzen baitu. Hau guztia diseinatuko den hezkuntza proposamenean konprobatu ahalko da.

Halaber, Practicum moduluak bidea eman digu, kasu honetan, lanaren atal praktikoan, hezkuntza proposamena aurrera eramateko. Modulu honetan ikasitakoa eta praktiketan bizitakoa aintzat harturik, jarduerak eta kontzertu didaktikoa diseinatzeko balioko du. Practicum atala, beraz, emaitzak eta eztabaidak atalean aurkituko da.

Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira *antecedentes, objetivos y cuestiones* eta *conclusiones y cuestiones abiertas* atalak baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Musika ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren alde egin dezakeen baliabide erakargarria da. Egungo gizartean musikaren arloan pertsona jakin batzuek tokia besterik ez dutela uste da. Hori dela eta, musikak duen garrantzia gaitzetsita geratzen da.

Aurrean daukagun dokumentuan, Haur Hezkuntzako hain garrantzitsua den hezkuntza musikala aldarrikatzearekin batera, egungo hezkuntza sistemari proposamen bat planteatzen zaio: kontzertu didaktikoa. Musikaren arloak haurrengan duen eragina ikustearekin batera, kontzertu didaktiko baten atzean zer dagoen eta kontzertu hauen bidez haurrek ikas dezaketena ikusi ahalko da. Gainera, hezkuntza musikalak bizitzako lehen urteetan lantzeko ezinbestekoa den esparruarekin lotura estua du: hezkuntza emozionala. Guzti hau kontuan hartuta, kontzertu didaktiko baten diseinua planteatuko da, Haur Hezkuntzako azken urteko haurrentzat bideratua egonen dena.

Guzti honen bidez, haurraren garapen integralean duen eragina ikusteko aukera eskainiko du lan honek, hezkuntza alorrean musikak eduki beharko lukeen tokia aldarrikatuz.

Hitz gakoak: kontzertu didaktikoa; hezkuntza musikala; emozio hezkuntza; garapen integrala; Haur Hezkuntza.

Abstract

Music is an appealing resource witch helps not only with learning, but also with teaching. Nowadays there is a pervasive sense in our society witch believes that music is an activity restricted to a minority. Following this idea, the teaching of music is pushed into the background. This document pretends to defend the importance of music in the preschool and to suggest a new activity that could enrich the education system: didactic concerts.

Apart from discovering the positive influence that musical education has in these early ages, the present work will show how the educational concerts work and how they improve the learning of children.

Besides, the musical education is linked closely to emotional education, and this second one is considered essential for the proper rising of children.

Relating to these ideas, this document wants to propose an educational concert, aimed particularly to children who are in their last year of preschool. The main purpose of this work is to underline the high impact of music in the comprehensive development of children, and to defend it´s great importance in our education system.

Key words: didactic concert; musical education; emotional education; comprehensive development; Infant Education.

Resumen

La música es un recurso atractivo que puede favorecer tanto al aprendizaje como a la enseñanza. Hoy en día se impone la idea de que solo ciertas personas pueden ocupar un lugar en el ámbito de la música. Así, la enseñanza de la música queda relegada.

En el presente documento, se revindica la importancia de la música en la etapa de Educación Infantil y se plantea una propuesta al sistema educativo: los conciertos didácticos. Además de ver la influencia de la educación musical en los niños, se observará todo lo que hay detrás de estos conciertos y lo que los niños aprenderán mediante ellos. La enseñanza musical tiene además una vinculación estrecha con uno de los aspectos más importantes para la educación en los primeros años de vida: la educación emocional.

Atendiendo a estos aspectos, se planteará un concierto didáctico, destinado a niños que cursen el último año de Educación Infantil. Con todo esto, se podrá observar la influencia que tiene este tema en el desarrollo integral del niño, reclamando a su vez el lugar adecuado de la música en la educación.

Palabras clave: concierto didáctico; educación musical; educación emocional; desarrollo integral; Educación Infantil.

AURKIBIDEA

Antecedentes, objetivos y cuestiones
1. Marko teorikoa **1**
1.1. Musikaren bilakaera:pedagogo ezberdinen ekapernak 1
1.2. Hezkuntza musikala 7
1.3. Musikaren garrantzia Haur Hezkuntzan 14
1.3.1 Marko lelegilea 16
1.4 Emozioen hezkuntza oinarri 20
1.5 Kontzertu didaktikoa 24
1.5.1 Zer dira kontzertu didaktikoak? 24
1.5.2 Antolamendua 28
1.5.3 Helburuak 30
2. Materiala era metodoa **32**
2.1. Orquesta Ciudad de Granada 32
2.2. John Williams kontzertu didaktikoa 35
3. Emaitzak eta eztabaidak **37**
3.1 Kontzertu didaktikoaren diseinua 37
3.1.1 Praktikara eraman aurretik 38
3.1.1.1 Testuingurua 38
3.1.1.2 Gelan landuko diren jarduerak 38
3.1.2 Kontzertu didaktikoaren diseinua 46
3.1.2.1 Kontzertuaren ezaugarri nagusiak 46
3.1.2.2 Apainketa 47
3.1.2.3 Materiala 48
3.1.2.4 Helburuak 49
3.1.2.5 Edukiak 50
3.1.2.6 Ebaluazio irizpideak 50
3.1.2.7 Ipuina 50
3.1.3 Kontzertu didaktikoa ondoren 57
3.1.3.1 Amaierako ebaluazio jarduera 57
3.1.3.2 Dokumentazioa 58
Conclusiones y cuestiones abiertas
Erreferentziak
Eranskinak
E. Eranskina I
E. Eranskina II
E. Eranskina III
E. Eranskina IV
E. Eranskina V
E. Eranskina VI
E. Eranskina VII
E. Eranskina VIII
E. Eranskina IX
E. Eranskina X

ANTECEDENTES, OBJETIVOS Y CUESTIONES

En las últimas décadas, gracias a diversos estudios e investigaciones realizadas en el ámbito de la educación puede afirmarse la importancia de la música en el desarrollo integral del niño y niña. A pesar de esto, la educación musical sigue teniendo un destacable vacío en nuestro sistema educativo.

El arte de la música, por su carácter propio, tiene un poder en hacer sentir emociones y sensaciones en las personas que muchas otras disciplinas no tienen la capacidad de hacerlo. Asimismo, posee la fuerza de desarrollar el lenguaje de la música, exponiendo y expresando dichos sentimientos. David Elliot (1995) corrobora esta afirmación, afirmando que la educación musical mejora la salud de la mente y del alma.

En cambio, este privilegio no es aprovechado por las instituciones educativas, por lo que la educación musical queda, prácticamente, marginada.

Siempre he pensado que una educación basada en los sentimientos y en las emociones es totalmente gratificante y necesaria para el niño y niña. Recordemos que la etapa de Educación Infantil es la primera del sistema educativo, por lo que establecer y trabajar el ámbito personal es imprescindible. Al fin y al cabo, todo lo incorporado en estas edades repercute en los siguientes años de vida. Por ello, mediante este trabajo de carácter empírico quiero ser partícipe reivindicando y exigiendo una ineludible educación musical.

En este Trabajo de Fin de Grado (TFG), me centraré en la importancia que supone la educación musical en la etapa de Educación Infantil, concretamente en el 3º curso del segundo ciclo (5 años). Para ello, expondré un recurso muy atractivo para estas edades tan tempranas que se presentará como una nueva propuesta para la educación: los conciertos didácticos.

Para esta nueva propuesta educativa, lo primero que haré será contextualizar el tema mediante un marco teórico, el cual ayudará a situarme desde un principio. Me adentraré en la historia musical hasta nuestros días, profundizando la educación musical y destacando su importancia en la Educación Infantil.

Igualmente, teniendo en cuenta que la nueva propuesta se centra en los conciertos didácticos, remarcaré la importancia de éstos y la de trabajarlos desde la escuela. De este modo, expondré los objetivos que poseen y la influencia que genera. Todo esto me servirá como base para, finalmente, diseñar mi propio concierto pedagógico.

Para realizar este trabajo empírico, me centraré en dos aspectos clave, los cuales me servirán como referente a la hora de diseñar el mío: La Orquesta Ciudad de Granada y un concierto didáctico que tuve la oportunidad de vivirlo personalmente el pasado 4 de mayo en el teatro Gayarre de Pamplona-Iruña.

En último lugar, comprendiendo todo lo observado e investigado, diseñaré mi propio concierto didáctico para niños de 5 años de edad.

Espero, sinceramente, que este trabajo me sirva a mí y a todos los lectores que puedan adquirirlo posteriormente para reflexionar sobre la situación musical actual que tenemos en nuestro sistema educativo. Además, espero que en un futuro, como docente de la etapa de Educación Infantil pueda llevarlo a la práctica.

1. Marko teorikoa

Atal honetan, lanaren atal teorikoa aztertu eta eskainiko da. Gaian kokatzeko, musikak izan duen bilakaera, hezkuntza musikala bera eta honen garrantzia Haur Hezkuntzako etapan lantzeko zein den azalduko da. Bukatzeko, emozioen hezkuntzaz eta kontzertu didaktikoen inguruan hitz eginen da.

1.1 Musikaren bilakaera: pedagogo ezberdinen ekarpenak

Egungo musikaren egoera ulertzeko, ezinbestekoa da aurreko mendeetan iragan diren gertakizunak ezagutzea. Azken batean, pedagogia musikalean emandako lehen pausu horiek, berebiziko oihartzuna izan baitute egungo musika alorrean.

XX. mendean, II. Mundu Guda ondoren, pedagogia musikalaren inguruko gertaera garrantzitsuak eman ziren, hezkuntza musikalaren inguruko kezkak eta jakin-min nagusienak Alemanian eta Europako ipar eta erdialdeko herrialdeetan piztu zirelarik. Herrialde mediterraneoetan (Italia, Espainia …) beranduago zabaltzeaz gain, izandako eragina murritzagoa izan zen ere.

Musikaren paper hezitzaileak, antolaketa eta helburu zehatzak finkatuz, berezko izaera lortzen zuen heinean, leku nabarmena eskuratzen joan zen hezkuntzaren alorrean. Halaber, metodo aktibo ezberdinak agertuz joan ziren, haurraren jarduera abiapuntutzat hartzen zituztenak eta aurrerago aipatuko direnak.

Hezkuntza musikalaren inguruko balioa handitzeko abiapuntua, Copenhaguen ospatutako UNESCOren II. Biltzarrara jo behar dugu. Bertan, eskolan hain beharrezkoa zen hezkuntza musikalaz mintzatu ziren.

XX. mendean emandako ekarpenik garrantzitsuenen artean, hezkuntza musikalaren helburua artistak heztea ez dela azpimarratu zen. Halaber, haurrak emozioak sortzea eta natura estetikoaren bizipenak ezagutzea ezinbestekotzat jotzen zuten, bidenabar, haurrek musikarekin jolasten eta dibertitzen zirelarik. Hau guztia mendearen bukaeran egindako aipamenean irakur daiteke:

> “La Nueva Pedagogía Musical parte de los elementos musicales más simples, no imponiendo nunca al alumnado la rigidez de una técnica, para él sin significado, sino que se propone despertar en cada niño el sentido del sonido, del ritmo y del movimiento, de la interpretación musical y de la vivencia de la obra musical.” (Escudero, 1988, 13)

XX. mendeari, Pedagogia Musikalaren Urrezko Mendea izendatu zitzaion. Izan ere, aipatu bezala, aurrerapen eta ekarpen nabariak eman baitziren musikaren arlo honetan. Pedagogia musikal berriaren bertsio ezberdinak hedatu ziren, haurraren jardueran eta sormenean oinarritzen zirenak. Haurraren gaitasun musikalen eta trebetasunen ezarpena bilatzen zuten, metodologia aktibo berrien eta kontzepzio aktiboen bidez.

Metodologia berri honen pedagogo-bultzatzaile ugari egon ziren:

- *Émile Jacques-Dalcroze* (1865-1950): pedagogo eta konpositore suitzarra. Metodologia aktiboa aplikatzearen aitzindaria izan zen, ondorengo autoreek abiapuntu bezala hartu zutelarik. Bere ikasle batzuengan erritmo musikala sentitzeko ezintasunaren aurrean, gorputzaren mugimendu erritmoetan oinarritutako metodologia sortu zuen. Bere oinarrizko printzipioa gihar-zentzua erritmo-zentzua zela baieztatzen zuen. Hori dela eta, bere metodologia gorputz zentzua eta gihar zentzua funtzionamenduan jartzera bideratua zegoen. Pedagogo honen erritmikoan, arreta, inteligentzia, adimen azkartasuna, sentsibilitatea, mugimendua, inprobisazioa eta erlaxazioa bezalako gaitasunak elkartzen saiatzen da. Dalcrozeren metodologia hezkuntza etapa ezberdinentzako egituratua egotearren, garrantzia Haur Hezkuntzako etapan zentratzen du. Honen sinkretismoak psikikoaren eta fisikoaren arteko lotura laguntzen du, eta klase baten iraupenak ez ditu 30 minutuak gaindituko. Gainera, erritmo mota guztia mugimendua dela baieztatzen du, mugimendu guztia materiala, eta materialak espazioa eta denboraren beharra duela. Haurren mugimenduak fisikoak eta inkontzienteak dira eta esperientzia fisikoak kontzientzia osatzen duena da. Bukatzeko, mugimenduen erregulazioa mentalitate erritmikoa garatzen du.

1915. urtean, Instituto Jacques-Dalcroze Ginebran eraiki zuen, berehala, Paris, Londres, Nueva York eta beste hainbat hirietara irakaspenak zabaldu zirelarik.

Zoltan Kodály (1882-1967): musikologo eta konpositore hungiarra. Bere lana bi alderdi dituen ikerketan oinarritzen da: folklorikoan eta pedagogikoan. Pedagogia musikalean aplikatutako intuizioak hain nabarmenak izan ziren non ikaslearen kontzientzia musikalaren heziketa Hungrian ezartzeaz gain, Mendebalde osotik zabaldu egin zen ere.

Bela Bartókekin (1881-1945) batera, landa eremuko musika folklorikoaren bilketa egin zuen. Azken batean, beraren helburua Kodalyren hitzetan honakoa zen:

> "Nuestro objetivo es la cultura musical húngara. Nuestros medios, la generalización de la lectura y escritura de la música a través de las escuelas, ayudando a despertar la manera de ser húngara. Paralelamente es necesario elevar el nivel del gusto general en materia de música." (Kodaly, 2001, 166)

Kodalyren metodologian hiru ezaugarri garrantzitsu ezberdin daitezke: Hasteko, oinarri bezala, bere herrialdearen *folklorea* erabiltzen du. Gainera, silaba erritmikoaz baliatzen da, *fononimia* hasieratik erabiliz. *Solfeo erlatiboan* oinarritzen da, tonalitate bakarra erabiliz eta haurren intonaziora kantak moldatuz.

Konpositore honek Hezkuntza Musikala lantzea bizitzaren lehenengo urteetatik garrantzitsua zela zioen; are gehiago, jaio aurretiko haurrekin landu beharreko zerbait zela azpimarratzen zuen.

Carl Orff (1895-1982): Konpositore eta orkestra zuzendari alemaniarra. Hain ezaguna bilakatu zen *Carmina Burana* obra sortzeagatik. Orffek haurrekin talde lanak proposatzen zituen lan egiteko, ikaskuntza errefortzatzeko balioko zuena. Gainera, arduradun zentzua, arretarako gaitasuna eta memoria musikala bezalako esparruak ukitzen zituen bere proposamenean.

Orffen metodologia erritmo eta hizkuntzaren arteko erlazioan oinarritzen zen. Musika ikasi aurretik sentitzea lortzen zuen, ahotsaren, instrumentalaren, ahozko eta gorputz mailetara eramanez. Metodoraren abiapuntua erritmoan dago. Izenen errepikapenarekin hasi egiten da, esapideak, hitz jolasak eta errimak haurrek errepikatuz. Haurren asmaketa sustatzea du helburu, sistema

zurrunetik aldenduz eta musika orientazio aukerak irakasleari zabalduz. Guzti honekin, Orffek gaitasun pertzeptiboak eta adierazpen gaitasunak garatzea bilatzen zuen.

Kodalyren kasuan bezala, konpositore honek bere herrialdearen folkloretik hainbat elementu hartu zituen bere metodoa garatzeko. Bere metodologiak hurrengo prozesua aurkezten du:

- Hitzetik hasi esaldira iristeko.
- Esaldia gorputzera transmititzen da.
- Perkusio instrumentuan bilakatzen du esaldi hura.
- Gorputz perkusioa lantzen du
- Gutxika, instrumentu perkusio txikietara igarotzen da.
- Bukatzeko, soinu zehatzak dituzten instrumentuetara progresiboki igaro

Ikus daitekeenez, lehendabizi gorputz perkusioa lantzen da, haurrek gertuago aurki dezaketena, alegia (pausuak, txaloak, oinak, txistuak …). Ondoren, *Instrumentarium Orff*-en aurkitzen diren perkusio instrumentuetara gerturatuko direlarik.

Carl Orffen ideiak eta honen metodoaren oinarriak, aurrerago lan honetako atal praktikoan diseinatuko den kontzertu didaktikoan ikusi ahalko dira islaturik.

Edgar Willems (1890-1978): musikari eta artista belgikarra. Musikari honek haur guztiek musika ikasteko aukera izan behar zutela aldarrikatzen zuen. Musikaren ikasketa profil psikologikotik abordatzen zuen, hori dela eta Willemsen metodoa hiru esparruetan banatzen zen. Lehenengoa, eta aipatu berri den bezala, musikaren eta gizakiaren arteko erlazio psikologikoetan arduratzean datza. Bestetik, soinuaren eta erritmoaren natura hobesten du, eta hirugarrenik, teoria landu aurretik praktikako aldea trebatu egiten du.

Willems Metodoa beraz, haurren oinarrizko hezkuntza musikalean zentratzen da, entzumena abiapuntutzat harturik. Azken batean, soinua, musikaren baitan aurkitzen dena da eta bide honetatik jarraiki, haurrak motibatu behar direla gailentzen du. Honetarako gorputza baliabide bezala erabiltzeaz gain, soinuak dituen nolakotasunak ikusteko materialen manipulazioa erabiliko da. Erritmika

ezberdinen erabilera proposatzen du ere, inprobisazio erritmikoa, melodikoa eta armonikoa sustatuz. Bere obran hurrengoa aipatu zuen:

> "Al referirnos a la naturaleza de la música, pensamos ante todo en sus tres elementos fundamentales: el ritmo, la melodía y la armonía. Este triple aspecto de la música, cuyo acceso resulta fácil en la práctica diaria, nos permite establecer paralelos de prueba con naturaleza humana, pues dichos elementos, en sus momentos característicos, son respectivamente tributarios de la vida fisiológica, afectiva y mental." (Willems, 1984, 168[1])

Maurice Martenot (1898-1980): konpositore eta ingeniari frantsesa. Martenotek erritmoaren berezko zentzua landu behar zela aldarrikatzen zuen, melodiaren eta neurketaren nozioa baztertuz. Martenoten helburuak, Livre du maître[2]-n azaldu zuenez, hurrengoak dira: musika maitatzea, garapen musikala hezkuntzaren zerbitzuan jartzea, izatearen garapenean laguntzea, energiak bideratzeko bideak ematea, ezagutza teorikoak modu bizian transmititzea jolas musikaletan zehaztuz, eta kalitatezko entzule sentikorrak heztea. Metodo honen jarduerek, isiltasunezko jolasak, hizkuntzan oinarritutako jarduerak, barne entzumena eta heziketa sentsoriala lantzea eskatzen zuten. Honetaz gain, intonazioaren garrantzia nabarmentzen zuen, imitazioaren parte zela baieztatzen zuelarik. Erlaxazio jarduerak metodologia honen atal bezala hartzen zuen konpositore honek ere.

Maria Montessori (1869-1952) Italiar pedagogo berritzaile eta psikiatra izan zen. Montessorik musikaren garrantzia nabarmentzen du, bihotzaren atea zabaltzen duelala baieztatuz. Horregatik, haurraren garapenerako musika ezinbestekoa zela zioen. Zentzuen hezkuntzan oinarritu egin zen pedagogo hau, azken batean, hezkuntza premia bereziak zituzten haurrekin lan egiten zuelako. Entzumena eta ukimenaren zentzuekin lan egiteari garrantzia eman zion. Hori dela eta, Montessoriren helburuak hurrengoak ziren: entzumena, erritmoaren zentzua eta ikaslearen autoestima garatu. Horretarako, entzumen hezkuntza,

[1] Cuerpo de Maestros. Temario de Educación musical-ean aipatua
[2] Principes fondamentaux d'éducation musicale. Livre du maître. 1960. Maurice Martenot

erritmo hezkuntza, ukimenaren hezkuntza eta ahozko hezkuntza sustatu zituen. Montessorik hurrengoa gehitu zuen bere liburuan:

> "Hoy se busca la forma de poner a la mano del pueblo la música con conciertos en plazas públicas, acercándola a las masas sociales; sin embargo, es la educación la que debe realizar este proceso: sin la educación musical adecuada, tendremos un pueblo de sordos a quienes les es negada la posibilidad del regocijo musical" (Maria Montessori, La autoeducación en las escuelas elementales, 1916. http://pedagogia.montessoridecancun.com/index.php/lecturas-montessori/113-la-musica-y-el-metodo-montessori).

Murray Schafer (1933). Kanadiar ekologista, konpositore, ikertzaile eta hezitzailea. Schafer kutsadura akustikoaren aurka borrokatzeagatik erreferente argia dugu. Isiltasunaren balorea nabarmendu eta soinua sormenerako iturri bezala ikusten zuen. El compositor en el aula (1965), Limpieza de oídos (1967), Cuando las palabras cantan (1970) eta El rinoceronte en el aula (1975) bezalako obrak idatzi zituen. Konpositore honen metodologia aurkikuntzaren, ekintzaren, ulermenaren eta ezagutzaren bideak irekitzean oinarritzen zen. Bide hauek induktibo-deduktibo, estumulatzaile, informal eta irekiak izan behar zirela zioen, hausnarketarako espazioak eraikiz eta ondoren ikasketarako balioko zutenak. Honetarako, ikaslearekin elkarrizketak eta *feed-back* azkarrak edukitzea goresten zuen. Murrayren proposamenak hurrengoak ziren: sormen musikala, entzumen esperimentazioa, eguneko hizkuntzarekin hizkuntza musikalaren erlaxazioa eta pedagogi musikal irekiaren hausnarketa.

Pedagogo eta konpositore guzti hauek ezagututa, begi-bistan gelditzen da XX. mendean agertutako ikuspegi berriek nolako eragina izan zuten: irakastetik eta ikastetik, bizipenak lantzera, jolastera eta esploratzera, ikastearekin batera, jakina. Honek irakaskuntza aktibo bihurtzen zuen. Haurrek jasotzen zuten heziketa motibagarriagoa bilakatzen zen beraientzat, ondorioz, interesa sortuz eta mantenduz. Hori dela eta, irakaskuntza prozesuari emaitzei baino garrantzi gehiago ematen hasi zitzaion, deskubritzeko, ezagutzeko eta aztertzeko, esploratzearen beharra suposatzen zuelako. Hori dela eta, pedagogia aktibo horretan, haurren hezkuntza beharrak asetzearen muina aurkitzen zen, auto

didaxia bezalako prozesuak bilatzen zirelarik. Auto didaxia bezalako prozesuak, izen berak esaten duen bezala, norberak lan egitean oinarritzen da. Esploratzean, deskubritzean eta ezagutzean, haurrek jarrera autonomoa bereganatzen dute, ezagutza propioak eraikiz. Hezkuntza musikala bokazio pedagogikoa zutenengatik estimulatzen hasi egin zen. Aldaketa itzela suposatu zuen honek, azken batean, bokazioa izanda, haurren heziketa prozesuen erritmoak errespetatzen zituztelako. Ikaskuntza esanguratsua jasotzen zuten bide honekin, esan bezala, esperientzia berriak eta ezagutza propioak garatzen zituztelako. Hezkuntza bide berriak irekitzeaz gain, musikaren kontzeptu berria eraldatu egin zen, erakargarria eta ulerkorra bezala definituz. Hau guztiarekin, ondorio batera iritsi egin zen: hezkuntza musikalak zentzu hezigarri altua zeukan. Beraz, heziketa prozesuan hezkuntza musikala present egoteak haurraren ikaskuntzari mesede eginen lioke.

1.2 Hezkuntza musikala

XX. mendearen bukaeran indarrean jarri zen eta oraingo XXI. mende hasieran oraindik dirauen hezkuntza musikalaren aldeko *korronte mundiala* dagoela esan daiteke. Hau esatean, hezkuntza musikalaz hitz egiten dela errepikatu beharrekoa da, eta ez musikaren irakaskuntzaren edota heziketaren inguruan.

Hezkuntza musikala bezala ulertzen da giza gaitasunak esnatzeko eta garatzeko balio duena, izatez pertsonen oinarriaz arduratzen dena. Willemsek bere liburuan hurrengoa aipatu zuen:

> “La música no esta fuera del hombre, sino en el hombre” (Willems, 2002 21)

Aurreko mendeetan, zibilizazio berrien sorkuntzan (Txina, India eta Grezia), musika gizakiak zuen ezinbesteko balio bezala kontsideratzen zuten. Geroago, giza eboluzioarekin, musika dekadentzian eroriz joan zen, XX. mendean pedagogoen idei eta metodo berritzaileekin gora egitea berriro lortu zuelarik.

Musika, izatez, hezkuntza modernoaren tendentzia orokorren zergaduna da. Hezkuntza modernoak bizitza globalean, motrizitatean, zentzumenetan eta afektibitatean bezalako esparruei garrantzia eman zien. Oinarri berriak ezartzera jotzen zuen modernotasun honek. Jean Pestalozzi (1746-1827), Jean

Itard (1775-1838), Maria Montessori (1870-1950) eta Decroly (1871-1932) bezalako hezitzaile eta pedagogo hauek hezkuntza modernoaren oinarrizko printzipioak ezarri zituzten eta horiek egindako ekarpenei esker musikak hezkuntzan zuen atzerapena begi bistan geratu zen.

Pestalozzi haur behartsuez kezkatzeaz gain, musikari garrantzia ematen lehenetarikoa izan zen. Itardek “Educacion fisiológica del oido” idatzi zuen 1805. urtean eta aditzera eta entzutera ikasi ahal dela zioen. Montessorik Hezkuntza Berriaren ikuspuntutik eragin handia izan zuen. Haren ustez, hezkuntza musikalak ez zuelako hezkuntza sisteman merezi zuen tokia. Jokabide naturalak nabarmendu zituen, zentzumenen memoria azpimarratuz. Bestetik, Decrolyk Metodo Globala sortu zuen, hezkuntzan eragin handi izan zuena. Metodoa musikan aplikatua izan zen, hala ere, egun, metodo hura ez da aplikatzen musika irakasteko orduan.

Esan bezala, musikak, atzerapen nabarmena zeraman marrazketa, margoketa, hizkuntzekin, poesiarekin, kalkuluarekin etabarreko diziplinekin alderatuta. Arrazoia, musika barne bizitzarekin gehiago erlazionatzen dela izan zitekeen. Azken batean, beste diziplinak ukimenarekin edo ikusmenarekin lantzen ziren, eta musika, entzumen kanaletik zehar igarotzen zen. Bestetik, musika izatez afektiboa da, eta zentzumen afektibo bera, emozioak eta sentimenduak garatzeak heldutasun psikologigiko aurreratu bat eskatzen du. Gainera, musika, motrizitatea, dinamismo eta inteligentzia ere badela ezin da ahaztu.

Hezkuntza musikalak bizi duen gertaerarik onuragarrienetako bat, 1953. urtean, Bruselan Hezkuntza Musikalaren Elkarte Internazionalaren (ISME, International Society for Music Education) lehenengo biltzarra ospatzea izan zen. XX. mendearen erdialdean sortzeak musikak izan duen eboluzioaren mantsotasuna agerian gelditzen da. 1974.urtean, Perthen (Australia) ospatu egin zenean, metodo berrien erakusketa anitz eta idei psikologiko ugari azaldu ziren, egun, oraindik ere indarrean ageri direnak.

Eta guzti hau zergatik da hain garrantzitsua? Zergatik uste da haurrek hezkuntza musikala behar dutela? Hezkuntza musikalak uste baino eragin nabarmenagoa du haurren eguneroko bizitzan.

Hasteko, hezkuntzaren oinarrizko helburu bat kultura generazio batetik beste batera transmititzea izan da. Musika, edozein kulturaren nukleoan aurkitzen da, eta ez hori bakarrik; kulturan aurkitzen den esparru boteretsuenetarikoa da. Eskola haur guztien ahalmena garatzeko tokia da eta musikak duen potzentialtasuna, gizakian aurkitzen den ahalmen garrantzitsuenetariko bat da. Pertsona bezala hezteko eta garatzeko, irakasle baten laguntza ezinbestekoa da. Howard Gardnerrek 1982. urtean *Frames of Mind: The Theory of Multiple Intelligences*[3] liburua argitaratu zuenean, inteligentzia musikala zazpietako intelektual gaitasun autonomo bat bezala identifikatu zuen. Gardnerrek, giza inteligentziak deitzen die eta ikasle bakoitzarengan garatuak izan behar direla argudiatzen du.

Teorilari honek baieztatzen zuenez, inteligentzia musikala haurraren zerbitzuan dago haurrak melodiaren zati bat, leloren bat edo noizean behin, abesti oso bat errepikatzen duenean. Musikaren aspektuak aztertzeko ez du haurrak kasu honetan beharrik. Euren izenak errepikatzea atsegin dute, eta errepikapen hori altuera soinudunak aldatuz egiten dute. Guzti honek, inteligentzia musikalaren oinarrizko aspektu bat osatzen du. Norberaren izena edota beste edozein esaldi behin baino gehiagotan errepikatzean musikaren aspektu ugari ukitzen ditu. Esaldi erritmiko eta melodikoak sortzeaz gainera, ondoren preziatzeko eta aztertzeko balioko zaie. Bidenabar, musikaren adierazpenak dituen elementuak ezagutuko dituzte, hala nola, erritmoa, melodia, ehundura, forma, agogika, dinamika eta entzumen kalitatea, jolasean igarotzen duten bitartean.

> "Se encuentran pruebas convincentes de que los niños aprenden de manera eficaz cuando se ven comprometidos en proyectos ricos y significaticos, cuando su aprendizaje artístico está anclado en la producción; cuando hay un intercambio fácil entre las diversas formas de conocimiento, incluyendo las formas intuiitivas, artesanales, simbólicas y notacionales." (Gardner, 1994, 87 y 88)

Hezkuntza musikalak sormenari eta auto-adierazpenari ateak irekitzen dizkio. Musikak gure barne pentsamenduak eta sentimenduak adierazteko gaitzen gaitu. Irudimenean tokia du ere, non banakotasunaren ezaugarria baieztatzeko

[3] Euskaraz; Adimenaren moldaketa: inteligentzia anitzen teorema

aukera ematen digun. Funtzio guzti hauek pertsona bezala garatzeko aukera ematen digu eta gainera, pertsona guztiok adierazteko beharra dugunez, musikak, aukera hau eskaintzen digu. Auto-adierazpenaz hitz egin dela kontuan hartuta, eskolako gainerako ikasgaietan arazoak dituzten ikasleei musikak arrakastarako aukerak irekitzen dizkiela esan behar da. Ikasle bakoitza eskolako ikasgairen batekin definitua sentitu beharko litzateke. Azken batean, pertsona oro erosoago sentitzen baita ikasgai batean edo bestean. Hortaz, ikasketa plana, beste gaitasunak garatuak edukitzeagatik (musikaren kasuan, alegia) ez litzateke intelektualki hain zorrotza izan behar, ezin baita ahaztu, musikako klaseetan gaitasun itzelak agerian utzi dituzten ikasle asko aurkitzen direla. Eskola komunitatea, praktikoa eta adiskidetsua izan behar da, eta musikak, hezkuntza komunitatea eramangarri bilakatuko luke.

Gaiarekin jarraituz, hezkuntza musikalak, izatez gure pertsonalitatea ulertzen laguntzen du. Gizakion arteko harremanen erlazioen aspektuak ezagutarazten ditu, non beste moduren batean adierazteko ezinezkoa den. Modu honetan, musikak beste kulturen inguruan ikasteko bideak irekitzen ditu. Norbanakoaren inguruaz eta gainerakoen inguruaz gehiago ikasi nahi badugu, aurrena, zer gustuko dugun eta zergatik gustuko dugun ohartu behar gara. Hori dela eta, musika entzutean edo sortzean, pertsonen asetasuna handitzen da. Gure pertzepzioa, balioespenaren maila eta aukera berriak irekitzen dizkigu hezkuntza musikalak. Hurrengo irudian[4], hezkuntza musikalak dituen emaitza posibleak ikus daitezke:

[4] Psicopedagogía y educación musical. Eufonia nº 34. 2005. Barcelona. Grao



IRUDIA 1. Hezkuntza musikalaren emaitza posibleak (2005)

Gaitasun musikal artistikoari dagokionez, interpretazioa, entzumena, alfabetizazioa, konposizioa eta bat-batekotasuna bezalako ahalmenak, entrenamendu maila handikoak dira. Hauek emaitza identitate pertsonaleko esparruan bideratuak daude, sormena, apreziazio estetikoa eta emozio adierazpenak sortuz. Bestetik, esparru personal orokorrean, bi emaitza bil daitezke; alde batetik, ezagutzarekin eta ikaskuntzarekin lotuak, eta bestetik, emozio garapenarekin lotua dagoena. Guzti hau ere, ikus daitekeenez, identitate pertsonalarekin lotuta dago. Azkenik, esparru sozio kulturalak, moralaren, izaeraren eta bizi kalitatean eragiten du. Esparru honen ekintzak beste pertsonekin jardutean oinarritzen dira, hori dela eta, gaitasun interpertsonaletan paper garrantzitsua jokatzen du.

Musika aurki daitekeen ikur sistema sakonetarikoa eta boteretsuenetariko bat da. Suzzane Langerrek (1942) bere buruari galdetu zion pertsonentzat musika zergatik bilakatzen zen hain erakargarri. Berak gizakiak lau ikur sistema garatzen zituela baieztatzen zuen: hizkuntza, literatura, matematika era musika. Hauetako bakoitzak errealitatearen aspektu ezberdina erakusten dute, helburua

ingurugiroa ulertzen laguntzea delarik. Hori dela eta, hizkuntzaren, literaturaren eta matematikaren sinbolismoa ikastea ezinbestekoa den aldetik, musikaren sinbolismoa pertsonek ere ikasi beharko luketela azpimarratzen du. Langerren ustetan, sinboloak edo ikurrak sortzearen gaitasunak gizatasuna gizatiar bihurtzea bultzatzen duena da. Musika, izatez, ez da bizitzaren apaingarri hutsa; musika gizakiaren oinarrizko adierazpena da.

Musikak, beste oinarrizko diziplinek egiten ez duten bezala, arazo edo kezka baten aurrean erantzun zehatza ez aurkitzearen alde egiten du. Eta hau aipatzean, hezkuntza berak ikuspuntu hau beharrezkoa duela azpimarratzen da. Erantzun zehatzak bilatzeak, egungo hezkuntza sisteman hain arruntak direnak, eskolan giro artifiziala sortzea dakar. Hau guztia, beraz, errealitatearekin ez dator bat, eta ikasleari munduaren ikuspegi eraldatua aurkeztu egiten zaio.

Hala ere, hezkuntza musikalak duen alderdi garrantzitsuena emozioekin lotua dago. Musikak arima goresten du, gizakiei poztasuna sortarazten die eta bizi kalitatea hobesten du. Bizitzaren berezko ekintzetan kontsolamendua ematen du, hori dela eta, giza guztion oinarrizko sena dela agerian gelditzen da.

Hezkuntza musikalak ardura nabarmena duela ikus daiteke. Hori jakinik ere, musikari biziraupenerako duen balorea ezeztatzen zaio, eta horrek musikaren garrantzia gutxiesten du. Hurrengo aipamenean, Violeta Hemsy de Gainzak (1993) hezkuntza musikalaren inguruaz hitz egiten du:

> “Considero que todo niño debe tener acceso a un programa de instrucción musical de alta calidad, balanceado, comprensivo y graduado, enseñado por maestros calificados, y que éste debe desarrollarse en la escuela.” (Hemsy de Gainza, 1993, 21)

Hala ere, aipamen hau irakurri ondoren, musika eskolan ez lantzeko bi argudio ematen ditu, kontraesankorra izan daitezkeenak: lehenak, musika ona dela baieztatzen du. Hala ere, eskolatik at ikasi beharrekoa dela aipatzen du. Bigarren argudioa, gaitasun bereziak dituzten pertsonek musika bakarrik landu dezaketela dio.

Musikaren ikasketa pertsona konkretu batzuei zuzendua dagoenaren sinesmena duela urte asko desagertu behar zela. Suzukik (2004) aipatu zuen

bezala, pertsona batzuk musikarako gaitasuna ez dutela esatea, pertsona batzuk hitz egiteko gaitasuna ez dutela esatearen berdina zela. Gakoa ikasketa horiek garaiz astean aurkitzen da.

Musikak heziketa indibidualean laguntzeko gaitasuna dauka. Aldez aurretik aipatu den bezala, auto-errealizazio eta ekoizpen pertsonala asetzen parte hartzen du. Gainera, adierazpen eta sormen jardueretan parte hartzeko biderik esanguratsuena da hau.

Tamalgarriz, egun, eskaintzen den hezkuntza musikala ez da nahikoa. Izpirituaren ahuleria agerian dago, eta horrek, hezkuntza musikala behar du. Azken batean, musika zerbait berezia da.

Hezkuntza musikalarekin batera atxikirik dagoen kontzeptua garapen integrala da. Aipatu bezala, musikak sentsazio eta sentipen ezberdinak sortzeko gaitasuna dauka, eta guzti honek, haurren garapenean eragin zuzena dauka. Garapen integralaz ari garenean, pertsonaren garapenaren arlo soziala, afektiboa, kognitiboa eta emozionalaz ari gara, eta guzti hau, bizitza osoan zehar garatzen dena da. Hala ere, espresuki, Haur Hezkuntzako etapan landu beharrekoa da, bizitzaren oinarria etapa honetan aurkitzen baita. Renan Cortések (musikaria, konpositorea eta Universidad de Chileko irakaslea) hurrengoa aipatzen du:

> “Los niños con música tienen más sensibilidad, mayor capacidad de sentir.” (Artículo Diario El Mercurio, mayo del 2002, Chile)

Hezkuntza musikalak garapen integralean duen eragina hurrengo puntuan sakonki azalduko da, Haur Hezkuntzako etapan musikak nolako garrantzia duenaren inguruaz hitz eginen denean.

Atal honekin bukatzeko, hezkuntza musikalak hizkuntza hezkuntzaren lege psikologiko berdinak jarraitu behar dituela esan beharra dago. Baieztapen hau hurrengo taulan ikus daiteke:

Taula 1: Hizkuntza musikalaren eta hizkuntza hezkuntzaren arteko alderaketa[5]

HIZKUNTZA	MUSIKA
Ahotsak *entzun*	Soinuak, zaratak eta kantuak *entzun*

[5] El valor humano de la educación musical; p.35-36

Noizbehinka, hitz egiten duen ahoa *begiratu*	Entzumen, instrumental edo ahozko iturriak begiratu
Hizkuntzaren elementuak *gorde*	Soinuak eta soinuen segidak *gorde*
Silabak *gorde*, eta hitzak ondoren	Soinuen segidak eta melodien zatiak *gorde*
Hizkuntzaren balore afektiboa, adierazgarria, *sentitu*	Soinuen enkantuetara sentikor bihurtu
Hitzak erreproduzitu, oraindik ulertu gabe	Soinu, erritmo eta abesti motzak erreproduzitu
Hitzen *esanahi* semantikoa *ulertu*	Elementu musikalen *zentzua ulertu*
Inteligibleki, norbanakoa *hitz egitea*	Erritmoak, silaben segidak (la-la-la…) *asmatu*
Letrak ikasi, idatzi eta irakurri	*Noten* izenak ikasi, idatzi eta irakurri
Diktaketaz idatzi	*Diktaketaz* idatzi
Idazketa txikiak egin, olerkitxoak	*Melodiak asmatu*, abesti txikiak
Idazle, poeta edo *irakasle* izatera iritsi	*Konpositore*, *orkestra zuzendari* edo *irakasle* izatera iritsi

1.3 Musikaren garrantzia Haur Hezkuntzan

Hezkuntza musikalaren garrantzia ezagutu ondoren, Haur Hezkuntzako etapako haurrei nolako eragina suposatzen dien musikak ikusiko da.

Soinuak haurra bizitzaren lehenengo urteetatik inguratzen du (amaren sabelean dagoenetik ere). Ingurugiroan sortzen diren soinuek eta haurrak berak ere sortzen dituenak interesa sortu egiten diote, entzumen-munduaren aurrean haurrek jakin-mina erakutsiz. Natura berak, eguneko eginbeharrak, musika tresnek eta pertsonen ahotsek zentzumen eta mundu emozionalean eragin zuzena dauka. Haurrek, guzti hau sentitu eta jaso egiten dute. Bizitzaren lehenengo urteetatik, gizakion entzumena selektiboa da. Hau horrela izanda, horietako soinu askoren aurrean haurrak erreakzio anitzak edukitzen ditu, arreta jarriz edota soinu horien presentzia alboratuz. Kodalyk (1966) hurrengo aipatu zuen hezkuntza musikalaren inguruan:

> "Hace alrededor de dieciséis años, la Unesco organizó una conferencia sobre la educación musical y ante la pregunta: "¿Cuándo conviene comenzar el estudio de la música?, respondí: "Nueve meses antes del nacimiento". Desde entonces cambié de parecer y hoy respondería: "Nueve meses antes del nacimiento de la madre"." (Kodaly, 2002, 34[6])

Entzumen gaitasunaren hezkuntza Haur Hezkuntzako etaparen lehentasunezko helburua izan beharko litzateke. Honek hezkuntza musikalean lehen pausuak emateko balioko luke. Bidenabar, ahozko hizkuntza, hizkuntza musikalarekin batera garatuko zelarik.

Haur Hezkuntzako etapako haurren hezkuntzan entzunaldi musikalak oinarrizko elementua dira. Eskolan musikaren presentzia izateak haurra estilo, forma eta obra anitzekin kontaktuan jartzea ahalbidetzen duelako, bizipen eta sentsazio partikularrak sortaraziz. Erronkarik nabarmenena, musikaren mundua eta haurraren mundua batzeko dauden puntu positiboak ezagutzea da. Haur bakoitzak adierazteko modu propioak topatuz, jarrera aktibo eta inplikazio pertsonalen aurrean kitzikatua sentitzea bilatu nahiko da. Jarrera hauek haurrak haren ikaskuntza prozesu sentikorra izatea gauzatuko du, sentitzeko, biltzeko, deskubritzeko, eraikitzeko eta bestelako operazioen bidez.

Esan bezala, Haur Hezkuntzan horrelako jarduerak planteatuz gero, entzumen aktiboa sortzea bilatzen du, musikaren ulermena erraztearekin batera, erlaxatzeko, interpretatzeko, ezberdintzeko, konparatzeko eta eraikitzeko bezalako gaitasunak *esparru pertsonalean* garatzeen direlarik.

Alderdi pertsonalak Haur Hezkuntzan berebiziko garrantzia dauka. Bizitzaren lehenengo urteetan txikiak pixkanaka garatuz doaz eta adin hauetan, *garapen integrala* ezinbestekoa da. Hezkuntza musikalak garapen integrala garatzen lagundu egiten du.

Musika kulturaren elementu banaezina da eta mundua, aniztasuna, sormen gaitasuna garatzeko, komunikazio interpertsonalak, sentimendu eta ideien adierazpen pertsonalak eta emozio gaitasunak ezagutzeko eta ulertzeko

[6] El valor humano de la educación musical liburuan aipatua. Kodalyk aipamen hura 1966.urtean egin zuen arren.

musikak bide ematen digu. Zentzu honetan, hezkuntza musikalak gaitasun orokorren garapenean lagundu egiten du.

Garapen integrala landu nahian, inteligentziaren esparruari edo arlo kognitiboari garrantzi handia eman izan zaio betidanik. Hori dela eta, afektibitatea, arlo soziala eta emozionala bezalako esparruak islaturik geratu izan dira. Alonsok, Pereirak eta Sotok (2003) planteatzen duten bezala, baloreak eta jarrerak funtsezkoak dira gizakiontzat. Hauek nortasunaren egituraren parte dira, jokabidea orientatu eta motibatzearekin batera. Garapen integrala garatzean, esparru guztiak aintzat hartzea ezinbestekoa da. Aspektu afektiboari eta borondatezko jokaerei enfasia ematea beharrezkoa da, enpatia, afektua eta bestearenganako zainketaz arduratzea garatuko dituen sentimenduen-hezkuntza faltan sumatzen delako. Hezkuntza musikalak sentimenduen hezkuntza hau garatzeko bidea ematen digu. Zergatik? Musika adierazteko modu bat delako. Honek komunikatzera eramango ditu haurrak, sentimenduak eta emozioak modu pertsonalean, askean eta indibidualizatuan adierazteko aukera emanez. Bestetik, musika adierazpen bidea da, adierazteko posible egiten dituzten bide ezberdinak daudelako.

Hezkuntza musikala jasotzen dutenean, haurra lantzen ari denarekin bere osotasunean kontaktuan jartzen da. Honek bere formazioa maila guztietan aberastera laguntzen du: emozionala, afektiboa, psikikoa, fisikoa, kognitiboa etabar. Beste momentu askotan, aspektu partzialei arreta ipintzea suposatzen du, hala nola, iniziazioa, aurkikuntza eta hizkuntza musikalaren elementuak ezagutzea. Guzti hau printzipio batetik abiatzen da beti: haurrak bere pertzepzioa esperimentatzeko, aurkitzeko eta adierazteko askatasun osoa izatetik. Hezkuntza musikalaren oinarri hau Haur Hezkuntzako etapan lantzeak datozen hurrengo etapetarako baliagarri izanen zaie. Honezkero, sentimenduen edota emozioen hezkuntza hau, hezkuntza musikalak lagunduta aurrera eramanen da.

Beraz, esan bezala, Haur Hezkuntzan musika lantzearen helburua haurra sentsibilizatzea da, parte hartze aktiboaren eta hizkuntza musikalaren erabileraren bidez garapen prozesuak sustatuz eta estimulatuz.

1.3.1 Marko legegilea

Musikak Haur Hezkuntzako etapan duen nabarmena ezagututa, marko legegilea ezagutzea komenigarria da. Jakina, aipatutako guztia azaldu ondoren eta hezkuntza musikalak Haur Hezkuntzan duen eragina ezagutu ondoren, garrantzi horrek ez du zertan Haur Hezkuntzako Curriculum ofizialean egon beharrik. Oraingoan, hezkuntza musikalak marko legegilean izan duen ibilbidea ikusiko da.

1970.ean ezarri zen legeak, Hezkuntza Lege Orokorra- Ley,14/1970 General de Educación, hezkuntzan sekulako eragina izan zuen. Lege honek orientazio pedagogikoen bidez garapen legegilean hezkuntza musikala hezkuntza sistemaren etapetan atxikitzea planteatzen zuen. Hala ere, legeak zuen intentzioa izanda ere, musika geletan integratzera ez zen iritsi.

Musika hezkuntzan aintzat hartu zuen legea eta aldaketa nabaria suposatu zuena beranduago eman zen, 1990. urtean hain zuzen ere. Urte horretan LOGSE legea ezarri zen. Lege honek materia honen presentzia geletan egotea eskatzen eta bermatzen zuen, irakasle espezializatu batek klaseak emanen zituelarik. Momentu honetaraino, formazio musikala jasotzeko kontserbatorioetara joan behar zen, profesionalizatuek orientatzen zutena, eta konnotazio elitistak zituztelarik.

2006. urtean, LOE legea ezarri zen. LOGSEren orientazioak mantentzen zituen, hala ere, lege honekin, aurreko erregimen berezien irakaskuntzekin hezkuntzak pausu bat aurrera egin zuen. Oraingoan, irakaskuntza artistiko izendatu zituen musika bezalako ikasgaiak.

1970eko Hezkuntza Lege Orokorreko printzipio pedagogikoak, adierazpen dinamikoak mugimendu hezkuntza osatzen duen hezkuntza arloa da. Erritmoa, gorputz adierazpena, dramatizazioa, jolasak, kirola eta musika bezalako esparruek mugimendua pertsonaren garapen integralean ezinbestekoa den arlo bezala ikusten dute. Hala ere, ondorengo legeekin, bai LOGSE eta baita LOErekin musikak eboluzionatu egin du, eta musikak hizkuntza propioa duela uste eta aldarrikatzen da. Honen aurrean, sailkapen berri bat planteatu egiten da, musikari dagokion tokia emanez. Askotan, hezkuntza musikalaren interbentzioa aldez aurretik garatu diren aspektuetan ematen da, interbentzioaren berezko aspektua ezeztatuz. Hori dela eta, mentalitate edo

orientazio arazo batekin topatzen gara, adimen musikala sortzeko ezintasunean aurkitzen dena.

Egun, indarrean dagoen legea LOE da. LOEn oinarritua, Haur Hezkuntzako Nafarroako curriculum ofiziala daukagu. Bestalde, abenduaren 29ko 1630/2006 Errege Dekretuak gutxieneko irakaskuntzak ezarri ditu Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako. Bertan ezartzen denez, Nafarroako Gobernuari dagokio errege dekretu hori Nafarroako Hezkuntza Sistemara moldatzea; horregatik onetsi da 23/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculuma ezartzen duena. (Haur Hezkuntzako 2. Zikloko Nafarroako Curriculum Ofiziala, Luis Mª Campoy Zueco, Hezkuntza Kontseilaria, Aurkezpena)

Curriculumean irakur daitekeenez, Hezkuntza Artistikoen inguruan zera aipatzen da, hezkuntza husika barne hartzen duena, hain zuzen ere: *"Arte hizkuntzan hizkuntza plastikoa eta musikala sartzen dira. Musika hizkuntzak errealitatea irudikatu eta komunikatzea ahalbidetzen digu, soinuak denboran erabiltzearen bidez. Asmoa da adierazi eta irudikatzeko bide horretaz baliatzeko gaitasuna pixkanaka handitzea, hezkuntzako helburu orokorretan erabiltzeko.Gaitasun artistikoak garatzen ere laguntzen dute hizkuntzek, eta horrekin batera kontzientzia kritikoa sustatzen dute, esperientzia estetikoak besteekin partekatzearen ondorioz. Modu osagarri batez, hizkuntzek ikasleen garapen integratua sustatzen dute, eta beste bi arloen edukiekin batera lantzen dira. Hizkuntzen bitartez, irudimena eta sormena lantzen dituzte, beren identitate pertsonala osatzen dute, beren emozioak, munduaz duten ezagutza eta errealitateaz duten pertzepzioa adierazten dute. Gainera, harremanetan sartu, erregulatu, komunikatu eta trukatzeko baliabideak izateaz gain, emozioak adierazi eta kudeatzeko eta errealitatea irudikatzeko tresnarik hoberenak dira. Kultur produktuak diren aldetik, funtsezko baliabideak dira norberaren kultur identitatea eratu eta bestelako talde sozialena estimatzen ikasteko.*" (Haur Hezkuntzako bigarren zikloko Nafarroako Curriculum Ofiziala)

Duela gutxi, Hezkuntza Lege berria onartu egin da: LOMCE, Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad Educativa (8/2013). Hezkuntza berri honek Hezkuntza

Artistikoak aukerako ikasgaiak bezala ezartzen ditu, bai Lehen Hezkuntzako etapan eta baita Bigarren Hezkuntzako etapan ere. Datorren ikasturtean, 2014/2015ean martxan jarriko da legea. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitatean, Hezkuntza Artistikoak tokia izaten jarraituko du datorren ikasturteari begira.

Curriculumak ezartzen dituen Haur Hezkuntzako helburu orokorretan, musika landuz bete daitezkeen helburuak ikus daitezke:

- Beren eta besteen gorputza eta ekintzarako ahalmenak ezagutzea eta desberdintasunak errespetatzen ikastea.
- Bere gaitasun afektiboak garatzea
- Komunikazioko trebetasunak garatzea hizkuntza, adierazpide eta irudikapenerako bide desberdinetan.
- Mugimendu, keinu eta erritmoaren hastapenak bereganatzea.

Curriculumak ezartzen dituen Haur Hezkuntzako edukietan ere, musika landuz beregana daitezkeen edukiak ikus daitezke:

- Zentzumenen erabilera. sentsazioak eta pertzepzioak. (Nork bere burua ezagutzea arloa)
- Bere eta besteen sentimenduak, emozioak, bizipenak, lehentasunak eta interesak identifikatu eta azaltzea. Nork bere sentimenduak eta emozioak gero eta hobeki kontrolatzea. (Nork bere burua ezagutzea arloa)
- Ahotsaren, gorputzaren, eguneroko objektuen eta musika tresnen soinu-ahalbideak ezagutzea. (Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena arloa)
- Soinuak musika jo eta sortzeko erabiltzea. (Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena arloa)
- Ingurune natural eta sozialeko soinuak ezagutu eta haien ezaugarriak eta oinarrizko kontraste batzuk (luzea-laburra, ozena-leuna, akutua-apala) bereiztea. (Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena arloa)
- Inguruneko musika obrak modu aktiboan entzutea. Kantak interpretatu, musika-jokoetan aritu eta dantzatzeko jardueretan modu aktiboan parte hartu eta gozatzea. (Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena arloa)

1.4 Emozioen hezkuntza oinarri

Dakigunez, Haur Hezkuntzako etapa, 0-6 urteko haurrak biltzen dituen etapa da. Bizitzaren lehenengo urteetan, aldaketa nabariak ematen dira haurraren garapen psikikoan nahiz fisikoan. Garapen egokia ahalbidetzeko, haurrak esparru ezberdinekin kontaktua edukitzea eta esparru ezberdin hauek lantzea beharrezkoa da. Etapa hau bizitzaren oinarria dela esan daiteke. Azken batean, hemen garatzen den guztiak eragina izanen duelako bizitzaren hurrengo etapetan. Hezkuntza emozionala lantzeak etorkizuneko jokabide desegokiak murriztea suposatuko du, errespetua bezalako balioa, hausnarketarako gai izatea, haur arduratsuak eta atseginak heziz.

Betidanik, hezkuntza komunitate gehienetan, haurraren garapen kognitiboari berebiziko garrantzia eman izan zaio. Haurrak edukiak ahalik eta azkarren bereganatzeari eta ahalik eta azkarren ikasteko beharrean ikusten zuten hezkuntza. XX. mendearen bukaera arte kognitiboan zentratutako hezkuntza proiektuak landu egiten ziren, emozionalitatearen papera alderatuz. Hau horrela izanda, gainerako esparruak landu gabe geratzen ziren. Afektua, emozioak, elkarbizitza, sozializazioa eta sentimenduen garapena bezalako alderdiak islaturik geratzen ziren, haurraren garapen integralean hutsune eta zulo nabarmena sortuz. Hala ere, XX. mendearen amaieran, Damasio, Daniel Goleman eta Le Doux[7] bezalako ikerlari eta neurozientifikoek ikerketa berriak aurrera eramaten hasi ziren, emozioetan, osasunean eta giza egokitzapenetan oinarritzen zirelarik. Golemanek *Emotional Intellligence* – Emozioen inteligentzia - liburua idatzi zuen. Liburuak izan zuen arrakastaz gain, inteligentzia honek eskoletan duen onura aldarrikatu egiten du. Golemanek hurrengo aipamena egiten du:

> "Si existe una solución, ésta debe pasar necesariamente, en mi opinión, por la forma en que preparamos a nuestros jóvenes para la vida. En la actualidad dejamos al azar la educación emocional de nuestros hijos con consecuencias más que desastrosas. Como ya he dicho, una posible solución consistiría en forjar una nueva visión acerca del papel que deben desempeñar las escuelas en la educación integral del estudiante, reconciliando en las aulas a la mente y al corazón." (Goleman, 1996, 17)

[7] XX.mendeko ikerlari eta neurozientifiko berritzaileak.

Haurra zoriontasunerako programaturik dator mundura. Norbanakoak zoriontasuna konkistatzeko eta armonian bizitzeko ezaugarri biologikoa dakar berarekin. Hala ere, haurraren ingurugiroa - bizitzaren lehenengo urteetan espresuki - izanen da haurraren patua zehaztuko duena. Emozioak eskolan instalatzea eta Hezkuntza Emozionalaren garrantzia haurren etxeetan zabaltzea ezinbestekoa izanen da guzti hau lortzeko.

Emozioa, kanpo estimuluei erantzuna emanez agertzen diren barne aldaketak dira. Gizakion oinarrizko emozioak jaiotzetik ditugu eta kontrako ardatz batean antolatzen dira:

Amorrua eta beldurra VS poztasuna eta lasaitasuna

Kontziente ez diren lehenengo emozio hauek eta bizitza osoan zehar laguntzen gaituztenak emozio primarioak izendatzen dira. Mehatxatuak, ulertezinak, eta abandonatuak sentitzen garenean, amorruaren eta babesgabetasuneko beldurrek erasotzen gaituzte. Bestetik, kontsolatuak izaten garenean eta maitatuak eta baloratuak sentitzen garenean poztu egiten gara, barne lasaitasun bat esperimentatuz.

Oinarrizko emozio hauetatik aurrera, konplexuago eta sofistikatuago batzuk agertzen joaten dira, bizitzak aurrera egin ahala dinamikoki eraikitzen doazenak. Poztasunaren eta lasaitasunaren ardatzaren gainetik, euforia, bozkarioa, estasia eta liluramendua agertzen dira, amorruaren eta beldurraren gainetik lotsa, frustrazioa, disgustua, itsukeria eta mesfidantza sortzen direlarik. Haurra hazten doan heinean, emozioak kontziente bilakatzen dira, norberaren gida biologikoan integratuz Modu honetan, eskema emozionalak ezarri egiten dira nortasunarekin interakzioan egonez. Sentimenduekin gauza bera gertatzen da. Oinarrizkoenetatik, hala nola, maitasuna, baikortasuna, samurtasuna, jeloskortasuna eta inbidia sentitzetik, norbanakoaren pertsonalitatearen ezaugarri banaezina sortzera iristen da: aberriari maitasuna izatera eta gutxiengoei gorrotoa edukitzera bezalako sentimenduak.

Armonia emozionala barne fenomeno biologikoa da. Hala ere, banaezinak diren faktore psikologiko eta esperientziaren faktoreak aurkitzen dira honen genesian. Aspektu soziala armonien potentzia eguneratuko duena izanen da, jarrerazko

behaketetara itzuliz. Hori dela eta, esperientzia sozialak indibiduo sozialari konstanteki desafiatu edota aurre eginen diona izanen da, barne oreka emozionala modelatuz.

Armonia emozionalaren plataforma primarioa hiru sentimenduek osatzen dute. Poztasun existentziala, motibazioa eta baretasuna. Lehenengoa gozamen iraunkorraren sentimenduan oinarritzen da. Horretarako, irudimena, jolasa, hedonismoa eta humore ona bezalako aspektuak inteligentzia inter pertsonalaren baitan daude. Poztasun honek aztertzera, sortzera, eta afiliazio prozesuak hobetzera motibatu eginen du. Honen gainetik baikortasuna eraikitzen da. Bigarren sentimendua, esan bezala, motibazioa dugu. Honek jakin mina estimulatzen du, misterioaren aurrean harridura sortzen duelarik. Bestetik, ikaskuntza berriak irekitzera bultzatzen du, esploratzeko, aurkitzeko, pentsatzeko eta baliabide kognitiboak irekitzen ahalbidetuz. Trebetasun metakognitiboen oinarria da. Azkenik, baretasuna daukagu. Oinarrizko konfiantzazko sentimendua da, babestua eta maitatua sentitzen laguntzen duena.

Sentimendu hauek pertsonaren adimena irekitzea eragiten dute, sormena, malgutasun eta egokitzapen kognitiboan lagunduz, esperientzien integrazioa estimulatuz, arazoen aurrean irtenbide sortzaileak eta asertibitatea garatuz. Sentimendu hauek Haur Hezkuntzatik finkatzea komenigarria da, txikitatik plazerezko sentimendu hauekin kontaktua izatea beraien garapenean eragin positiboa izanen duelako. Armonia emozionalaren botereak ezbeharrei aurre egiteko gaitasuna dauka; arazoak sormenez konpontzeko, bizitzaren baldintza bortitzetan egokitzeko, baloreak eta printzipio etikoak eskuratzeko, jokabide pre sozialak garatzeko, haurren egozentrismo naturala behar den garaian uzteko eta inguruko beste pertsonen perspektiba aintzat hartzeko … Esan bezala, guzti hau, adin txikienetik landu beharko litzateke.

Armonia emozionalarekin batera, behar afektiboak agertzen dira. Gizabanakoaren bizitza ezeztatu ezin daitekeen gertaera batekin hasten da: beste gizaki batekin lotuta egotearen ondoren sortzen den atxikimendua. Atxikimenduak bizitza osoan zehar “alter ego” aren beharrean sentitzea eragiten du. Honekin batera, lotura ezberdinak ezartzen joaten gara, erlazionatzen garen pertsonenen afektuarekin harreman zuzena duena. Behar

afektiboei dagokienez, beraz, hurrengoak dira: Baldintzarik gabeko onarpena, baldintzarik gabeko errespetua, baloratzea eta ezagutzea, afektuaren adierazpen esplizitua eta komunikazio afektibo eta eraginkorra.

Baldintzarik gabeko onarpenari dagokionez, gizabanakoon nortasuna nolakotasunez eta akatsez osatua dago. Horrezkero, bai nolakotasunak eta baita akatsak ere bihotzetik onartzeak gure burua osotasunean onartzea suposatuko du. Errespetua baldintzarik gabeko beste esparru bat da. Beste pertsonak jokatzeko modua edozein izanda ere, errespetua eta trataera atsegina zor diogu. Beste pertsona haurra bada, guzti hau kontu handiagorekin tratatuko dugu. Azken batean, haurrari eskaintzen diogun trataerak haurraren gaitasun pragmatikoak modelatutako ditu, arimaren segurtasunaren errespetua babestuz.

Haurren autoestima helduen jarrera baloratiboei esker eraikitzen da. Hori dela eta, euren jarrerek merezimendua eta balorapena merezi dute. Helduek beraien jokabide edota jarrerak onartzen dituztela azaldu behar dute. Bestetik, defektu edo akats horien aurrean ere helduek karitatezko jarrera eskuratu behar dute, akats horietatik ikasten denaren balorea transmitutuz.

Afektuaren adierazpen esplizituari dagokionez, haurrek adierazpen hauek behar dituztela esan beharra dago. Honek euren garapen integralean eragina izanen du eta gaitasunak eratzeko balioko zaie. Hori dela eta, afektu hori transmititzeko Haur Hezkuntzako etapan (eta gainerakoetan, jakina) kontu hartu beharko den aspektua izanen da.

Bukatzeko, komunikazio afektibo eta eraginkor ezaren aurrean, haur askoren emozio galera suposatzen duela esan behar da. Haur asko laguntzeko beharrean sentitzen direnean, helduek uzteko jarrera eskuratzen ohi dute. Kezkak ahozko hizkuntzarekin azalarazteko arazoak dituzten haurrekin gertatzen da hau. Zeinuak irakurtzeko gaitasuna edukitzeak, ondoren sortu ahalko diren jokabide desegokiak edota antsietate krisia ekiditeko balio ahalko du.

Ikus daitekeenez, Hezkuntza Emozionalak uste eta ematen zaion baino garrantzi handiagoa du. Aipatu diren esparru guztiak onuragarriak eta mesedegarriak izanen dira haurrak garapen egokia izateko. Hori dela eta,

hezkuntza komunitateetan eta etxeetan hezkuntza honek duen garrantziaz kontzientziatzea ezinbestekoa da.

Gradu Amaierako Lan honetan, hezkuntza musikalaz, besteren artean, hitz egiten da. Aldez aurretik aipatu den bezala, musikak sentimenduak, emozioak eta sentsazioak adierazteko boterea dauka. Beraz, hezkuntza musikalak eta emozioen hezkuntzak beraien artean lotura dutela argi geratzen da. Ondorioz, hezkuntza musikala lantzen denean, emozioen hezkuntza lantzen egonen gara bide batez.

Honetaz gain, lan honetan atal praktikoan kontzertu didaktiko bat planteatuko da. Haurrek kontzertu didaktiko batera joatean, emozioen hezkuntza presente egoten da hasieratik. Kontzertu didaktikoak duen helburuetako nabarmen bat, ikuslegoarengan emozioak eta sentsazioak sortzea da, aurrerako ikusi ahal izanen den bezala. Beraz, modu zuzenean ere, emozioen hezkuntza lantzen egonen dira.

1.5 Kontzertu didaktikoa

Marko teorikoarekin bukatzeko, lanaren muinera iritsi gara. Oraingoan, kontzertu didaktikoak zer diren ulertzeko aukera izanen dugu. Honek dituen helburuak eta garrantzia ezagutuz, kontzertu didaktikoak lantzean haurrengan edukitzen dituzten ondorioak ikusi ahalko dira. Musikologo eta pedagogoen ideiak islatuko dira gai honen inguruan, eta guzti honek, kontzertu didaktikoak ulertzeko bidea erraztuko dute. Bidenabar, hezkuntzarako proposamen bezala aurkeztuko da hasierako momentutik.

1.5.1 Zer dira kontzertu didaktikoak?

Victor Neumanek (2004) dioenez, kontzertu didaktikoak, baliabiderik egokiena da musika haur eta gazteei hurbiltzeko. Hainbat helburu eta ezaugarri izaten dituzte, eta honek haurrek ikastea suposatzen du. Hezkuntza komunitatean aurrera eramaten diren kontzertu didaktikoak curriculumaren jarduera osagarri bezala ulertu beharko lirateke. Honek, ikaslearen musikalizazio prozesua zehatza ahalbidetuko luke, etorkizunean jarduera musikalak egiteko estimulu gisa balioko lukeelarik. Julio Hurtadoren (2004) hitzetan kontzertu didaktikoek

plazerezko esperientzietan bilakatzen diren interakzio esanguratsuak sortzen dituzte.

Neumanek (2004), hurrengoa aipatzen du kontzertu didaktikoen inguruan:

> "Un concierto es *didáctico* cuando cumple objetivos pedagógicos definidos y se enmarca en un proceso educativo determinado. Algunas de sus principales características son: estar dirigido a un público determinado, cuyo perfil se conoce previamente; tener un programa seleccionado según los objetivos pedagógicos planteados y su adecuación al público; y la inclusión de algún tipo de presentación o guía, que facilita el acercamiento del público a la música con diferentes tipos de intervenciones." (Neuman, Profesorado, revista de currículum y formación del profesorado, 8 (1), 2004, 5)

Maria del Carmen Ortega Pradak (2009) hurrengoa gehitzen du:

> "Se trata de educar a través de la música de calidad, proporcionando una herramienta de apoyo a la tarea docente que derive en una experiencia musical, humana y de crecimiento personal de gran relevancia para nuestros escolares. Por esta razón consideramos fundamental tener claridad acerca de *"qué"* se quiere proponer y *"cómo"* proponerlo; es decir, tener presentes unos *criterios* que contemplen unos *contenidos* y *objetivos didácticos* que nunca han de perder de vista *a "quiénes"* va dirigido el concierto." (Papeles del festival de música española de Cádiz, nº 4, 2009, 49)

Kontzertu didaktikoek erronka handia planteatzen diete hezitzaileei. Izan ere, motibazioa, interesa eta musikarekin gozatzearen ondoren garatzen dena aspektu ezberdinen menpean dago. Kontzertu hauekin zein helburu bete nahi ditugun erantzun beharreko lehenengo galdera da. Helburuak kontuan harturik, kontzertuaren ezaugarriak finkatuko dira, irakasleen eta ikasleen prestakuntza nahikoa eratuz, gelako jardueren jarraipena eta esperientzia osoaren ebaluazio orokorra eginez.

Esan bezala, kontzertu didaktikoak, haurrek musikarenganako hurbilpena izateko baliabiderik erakargarriena da. LOGSE (1990) ezartzeak kontzertu didaktikoak zabaltzea suposatu zuen, bai hezkuntza komunitate formaletan eta

baita ez-formaletan ere (antzerkiak, liburutegiak, museoak). Hala ere, egun, zabaltze hori Bigarren Hezkuntzan eman zen. Haur eta Lehen Hezkuntzan ez zuen horrelako eraginik eduki.

Errenazimendu garaitik aurrera, musikak azalpena behar zuela pentsatzen hasi ziren. Sergéi Prokoviefek 1936.urtean *Pedro y el lobo* konposizio sinfonikoa sortu zuen, errusiar irakasle batek eskatua. Honek haurrentzako obra/ipuina sortu zuen, musikarekin lagunduta zegoena, bai narratzaile batekin eta baita orkestra batekin ere. Obra honek, sekulako eragina izan zuen, egun oraindik ere indarrean dirauena. Kontzertu didaktikoen jatorri zehatzik ez dago, hala ere, Prokoviefen obraren sekulako arrakasta izan zuen ikusita, kontzertu didaktikoen inguruan mintzatzean aipatzekoa ezinbestekoa da.

Kontzertu didaktiko batek kontzertu arrunt batetik ezberdintzeko ezaugarri anitz ditu. Didaktiko hitza erabiltzen denean, aipatu bezala, kontzertu horren atzean hainbat helburu pedagogiko aurkitzen direlako da. Hala ere, kontzertu didaktiko bat diseinatzen denean, hainbat ezaugarri kontuan hartu behar dira:

- Ikuslegoa nor izanen den jakitea.
- Aldez aurretik ezarritako helburuak erantzuten duen errepertorio bat zehaztea, publikoari egokitua egonda.
- Narratzaile edo ipuin kontalari baten parte hartzea egotea.

Ikuslegoa nor izanen den eta hauen ezaugarriak kontzertuaren programazioa eta prestakuntza egin aurretik jakitea funtsezkoa da. Ikuslegoaren adina, musikaren aurretiko ezagutza eta bizi izandako esperientzia musikala bezalakoak ezagutzea posible eginen du kontzertuaren programazioa zehaztea, hala nola, landuko diren edukiak eta aurkezteko era. Jakina, ez da berdin Haur Hezkuntzako ikasle batzuentzat kontzertu didaktiko bat prestatzea, edota Lehen Hezkuntzako ikasleentzat prestatzea. Kontzertuaren iraupena aldez aurretik kontuan hartu beharreko esparru garrantzitsua da. Bost urteko haur batzuek (Haur Hezkuntzako bigarren zikloko 3. mailako ikasleak) ezin dezakete ordu eta erdiko kontzertu bat entzun edota ikusi. Denbora gehiegi suposatzen du horrek haurraren adina kontuan hartzen baldi bada. Haurraren arretaren galera suposatuko luke kontzertu luze horrek.

Publikoak entzumen musikalean nolako esperientzia duen jakin beharreko beste puntu bat da. Guzti hau, errepertorioa zehazteko orduan aintzat hartu beharko da. Ikuslego berdinari kontzertu ezberdin asko eskaintzen zaienean, programazioa ahalik eta era askotarikoa izatea gomendatzen da. Hau da, garai ezberdinetako musika egotea, estilo, beste kulturetako musika eta jatorri ezberdinak aurkitzea. Ahozko musika eta eszenarako sortutako musika presente egotea onuragarria izanen da kontzertuarentzat ere. Bestetik, dantzaren, antzerkiaren eta mimikaren presentziak kontzertua erakargarriago bihurtuko du.

Azkenik, aurkezlea edo narratzailea egotea funtsezkoa da. Narratzailea izanen da kontzertu didaktikoa diseinatu aurretik planteatuko diren helburu horiek ikuslegoari transmititzeaz arduratuko dena. Hala ere, zereginik nagusiena, ikuslea motibatzea izanen da, musikarenganako hurbilpena gauzatuz eta horien arreta bereganatuz (azalpenen, komentarioen, narrazioen, adibideen, keinuen eta jolasen bidez). Aguilarrek (2002) aipatu zuenez, entzulearen sentsibilizazioak eta hezkuntzak aipatu berri diren kontsignak eskertzen ditu diskurtso musikalean agertzen diren parametro guztien pertzepzioa edukitzeko. Narratzailearen rola betetzen duenak komunikazio gaitasun egokiak izan behar ditu. Halaber, bat-batean espero ez diren eta sortzen diren egoera horien aurrean inprobisaziorako gaitasuna izan beharko du. Ikuslegoaren parte hartze aktiboa eta publikoaren ezaugarriak kontuan hartuta edukien egokitasuna plazaratzea narratzailearen ardura izanen da. Adierazpen baliabideak (aipatu diren keinuak, ahozkoak eta gorputz keinuak) ikuslearen interesa eta arreta mantentzeko baliabide aproposak dira. Horrek ingurugiro lasaia sortaraziko du, konfiantza eta erlaxazioa ikusleengan sortuz. Honetaz gain, narratzaileak aurrera eraman dezakeen jarduerak honakoak izaten dira: eduki musikalen azalpenak ematea, interprete ezberdinen bidez instrumentu ezberdinen aurkezpena egitea, adibide didaktikoak ematea eta ikuslegoari noiz esku har dezaketen adieraztea. Hau egiteko, aurkezleak hiztegi argi, egoki eta ulergarria erabiliko du, hitz tekniko gehiegi erabili gabe. Azken batean, teknizismo gehiegi erabiltzeak ikuslegoa nekatzea ahalbidetuko du. Guzti hau kontuan hartuta, publikoa musikara hurbiltzea lortuko da. Hala ere, narratzailea esperientziaren gidaria besterik ez dela izanen jakin behar da. Hemen, benetako protagonista,

kontzertu didaktikoak eskaintzen duen musika eta honen atzean dauden eduki eta helburu pedagogiko guztiak dira.

1.5.2 Kontzertu didaktikoen antolamendua

Komenigarria da oso, kontzertu didaktikoaren prestakuntza zaintzea. Askotan, didaktiko bezala aurkezten diren kontzertu anitz egin dira, azkenean, kontzertu horiek ikuslegoarentzat aspergarri bilakatu direnak, ukatzeko jarrera garatzearekin batera. Antolaketak, aurretiko ezagutzen eta aspektu ezberdinen hausnarketa suposatzen du, horietako asko testuinguru honetan esanahi berezia dutelarik:

Bertaratutako ikuslegoaren ezaugarriak

Kontzertuaren interpreteen eta ikuslegoaren aldez aurretiko kontaktua oso mesedegarria da. Kontzertu eskolarren kasuan, musikako irakasleekin, tutoreekin, ikasketa-buruarekin, zuzendariarekin eta parte hartzen duten gurasoekin ahalbidetzea onuragarria izanen da ikusleentzat. Aldez aurretiko jarduerak lantzea haurren interesak eta motibazioa duten ikusteko aukera egonen da, definitutako helburuen gauzatzea ahalbidetuz. Gainera, lehen aipatu den bezala, ikuslegoaren adina, esperientzia musikala eta dituzten eduki musikalak ere kontuan hartu beharko dira.

Espazio fisikoaren ezaugarriak, asistente kopurua eta kontzertua eskainiko den ingurugiroaren antolamendua

Kontzertua eskainiko den aretoan publikoa nola antolatuko den kontuan hartzea garrantzitsua da. Antolamendu aukerak izanez gero, erdi zirkuluan kokatzea gomendatzen da. Antolamendu honekin, haurrak musikarietatik distantziakide aurkituko dira. Laukizuzen kokatuz gero, azkeneko ilaretan aurkitzen diren ikusleak interpreteetatik isolatuegi egonen dira. Kontuan hartu beharreko beste aspektu bat, musikari eta antzezle eta ikuslegoaren arteko distantzia da. Eskenatokia altuegia izateak distantzia hori handiagoa izatea ahalbidetuko du. Hori dela eta, eskenatoki altuegi horiek ekiditea mesedegarria izanen da. Hau ekidinez gero, haurrekin kontaktu hurbilagoa izanen dute eskenatoki gainekoek. Azken batean, haurrek izugarri baloratzen dute musikariak hurbiltzea edota narratzaileak hainbat momentutan haurrengan pentsatzen dutela sentitzea.

Kontzertuaren iraupena

Gehiengo iraupena ordu batekoa izatea aholkatzen da, Lehen Hezkuntzako 2. Ziklotik aurrera aurkitzen garenean. Hala ere, Haur Hezkuntzan aurkitzen garenean, kontzertuaren iraupena gehienez 45 minutukoa izanen da. Azken batean, denbora luzez zerbait eskaini ondoren, arreta galtzeko joera dute. Honetaz gain, kontzentrazioa ez dispertsatzeko eta arreta egokia mantendu ahal izateko, kontzertua geldi unerik gabea izatea gomendatzen da erabat. Fernando Palaciosek (1997) ere haurrek duten arretaren inguruan eta honekin loturiko zerbait aipatu zuen XXVII Cursos "Manuel de Fallan:

> "Por la Psicología Evolutiva se sabe que la capacidad de concentración de un niño, de vamos aponer por caso, cuatro o cinco años en el tiempo es muy corta. (Los conciertos didácticos." (XXVIII Cursos "Manuel de Falla 46 Festival Internacional de música y danza de Granada, 1997, 49)

Hori dela eta kontzertuaren iraupena kontuan hartzeko aspektu garrantzitsua da.

Musikarien eta narratzaile eta publikoaren arteko interakzio ekintzen aukera eta aldez aurretiko jarrera

Musikariak eskenatoki gainean hitz egiterako orduan eroso ez sentitzea arrunta da. Hori dela eta, interakzioak egotekotan, gomendagarria da aurrez ikustea eta adostea, interpreteak eroso eta erlaxaturik sentitzeko.

Aurkezle edo narratzailearen ezaugarriak eta baliabideak interbentzio motekin batera

Aurkezleak izan beharreko ezaugarriak eta honen gaitasunez mintzatu egin gara. Aproposa da zehaztea interbenitzeko ekintza ezberdinen hausnartzeko beharra. Noiz eman azalpenak? Noiz zuzendu publikoari? Kontzertua musikarekin hasi edo azalpen batekin? Erantzun guzti hauen aurrean, erantzun zehatzik ez dagoela esan beharra dago. Hezkuntza musikalaz aritu garenean, musikak erantzun zehatza ez emateagatik berezia dela aipatu genuen. Hori dela eta, galdera hauen aurrean ere, erantzun zehatzik edo erantzun bakarrik ez dagoela aipatu beharra dago. Egoeraren arabera, erantzun bat edo bestea eman beharko litzateke. Garrantzitsuena, beraz, musikak duen protagonismoa ziurtatzea da. Hala ere, kontzertu didaktikoko egoera gehienetan, kontzertuaren

hasieran azalpen txiki bat ematea aholkatzen da, ikuslegoa testuinguruan kokatzeko eta kontzertua hastear dagoela kontura daitezen.

Esku programaren edukiak eta ezaugarriak

Garrantzi handikoa izan arren, kontuan hartzen ez den ohiko aspektu bat da. Esku programak programatutako obren informazio baliotsua dauka, zeinek kontzertua hasi aurretik publikoa hobeto kokatzeko lagundu ahal dion. *Laguntza-memoria*rako ere balio du, kontzertua bukatuta, jarduera ezberdinak lantzeko balio duena. Esku programa erakargarri bat, informazio nahikoarekin eta ikuslegoaren adinari egokitua, kontzertu didaktikoren parte da. Kasuak kasu, esku programak duen balioa kontuan hartuz, kontzertu aurretik eskoletara bidaltzen ohi da.

Ikuslegoak kontzertu didaktikoaren ondoren landu ahalko dituen jarduerak

Gomendagarria da kontzertua ondoren ikusleek jarduerak landuko dituzten jakitea. Honek, kontzertuan erreferentziak egiteko eta kontzertua ondoren entzumen musikala sustatzeko balioko du. Orquesta Ciudad de Granadako irakaslegoan parte hartzen dutenen artean, ondorio batera iritsi ziren: kontzertu didaktikoek duten helbururik nabarmenena, zuzeneko entzumen musikala sustatzea da.

Honetaz gain, jarduera osagarriak – kontzertu aurretik eta ondoren landuko direnak- , kontzertu didaktikoa eginkizun hezitzailea eta eratzen eta proiektu hezitzailea sortzen laguntzen du. Bidenabar, esperientzia hutsa ez izaten eta jarduera ez isolatzen laguntzen du.

1.5.3 Kontzertu didaktikoaren helburuak

Publikoa edozein izanda, kontzertu didaktiko guztiek helburu orokor batzuk dituzte, entzunaldi guztietan betetzeko intentzioa dutenak. Hurrengoak dira:

- Haurrak musikarekin hunkitzea eta disfrutatzea.
- Haurrak musika zuzenean entzuteko aukera izatea; bidenabar, musikarenganako hurbilpena sustatzea.
- Adierazpen musikalak disfrutatzera eta baloratzera laguntzea.
- Entzumen ulerkorra, adierazpen eta inteligentzia musikala garatzea.

- Kontzertuetara maiztasun handiagoan joateko beharra sortzea eta sustatzea.
- Eduki musikal ezberdinak ezagutu eta arakatu: musika instrumentuak, gizakion ahotsak, zuzendariaren eta musikarien lana…)
- Ikuslegoari musikaren irudi desmitifikatua eta musikarien irudi hurbilagoa erraztea.

Kontzertu didaktikoak eskolarrentzat prestatzen dituztenek eskolako irakasleekin hezkuntza musikalaren prozesuan parte hartu behar dute. Kabalevskyk (1988) aipatu zuenez, eskolak hezkuntza musikal modernoan orientatzeko ikasleak lagundu behar du.

Haurrak musikarekin hunkitzea eta disfrutatzea helburuak aipamen berezia merezi du. Gradu Amaierako Lan honetan aipatu den bezala, hezkuntza musikalak edo musikak beste diziplinek ez duten boterea dute: sentitzeko eta hunkitzekoa. Kontzertu didaktikoek haurrengan sentsazio ezberdinak sortzea du helburu, disfrutatzearekin batera. Publikoa Haur Hezkuntzakoa dela kontuan hartzen bada, jakinpean egonen gara garapen integralaren prozesuaren barne daudela sarturik. Hori dela eta, horrelako sentsazioak eta bizipenak sentitzeak eragin nabarmena izanen du haurrengan. Azken batean, honek hezkuntza emozionalean eragin zuzena izanen baitu, Haur Hezkuntzako etapan ezinbestekoa dena. Hauxe hurrengo aipamenean irakur daiteke:

> "El objetivo es fomentar la pluralidad de formas de vivir, pensar y *sentir*; y facilitar la reconstrucción de los conocimientos, actitudes y pautas de conducta que los alumnos asimilan acríticamente en las prácticas sociales, una preocupación que se enmarca en la visión crítica del proceso de enseñanza-aprendizaje ya mencionado con anterioridad," (Apple, 1986; Carr y Kemmis, 1988, 10[8])

[8] Cita obtenida de Neuman (2004) *Profesorado, revista de currículum y formación del profesorado, 8 (1)*

2.MATERIALA ETA METODOA

Ikerketa enpiriko hau aurrera eramateko oinarrian dagoen esparru teorikoa aztertzea eta eskuratzea beharrezkoa nuen, orain arte ikusi izan den bezala. Marko teorikoak gaiaren inguruan nituen aurre ezagutzak finkatzeko eta honen inguruan hausnartzeko balio izan zait.

Metodo enpirikoa esperientzian eta behaketan oinarritzen da, hori dela eta, ebidentzia ezberdinak batuko dira Gradu Amaierako Lan honen bukaeran proposatuko den diseinuarentzat.

Ikerketa enpiriko baten helburuak[9] hurrengoak dira:

- Ikerketa behaketa sinpleak baino haratago eraman
- Ulermena hobetzeko ingurugiroa bultzatu
- Ikerketa zabala kasu zehatz batekin konbinatu
- Teoriaren garrantzia frogatu, ingurugiro erreal batean lan eginez

Helburu hauek betetzeko beraz, metodoa bi esparru ezberdinetan aplikatuko dut: ikusi eta bizi izan nuen kontzertu didaktiko erreal batean eta Orquesta Ciudad de Granadan. Metodoa kualitatiboa eta kuantitatiboa izanen da. Kualitatiboa, alde batetik, kontzertu didaktikoan bereganatutako esperientzietan eta behaketetan oinarrituko delako. Bestetik, kuantitatiboa, Orquesta Ciudad de Granadako datu zehatzak aztertu eta behatuko direlako.

2.1 Orquesta Ciudad de Granada

1990. urtean sortu zen orkestra sinfoniko klasikoa dugu. Manuel de Falla auditorioan egoitza dauka, Granadan kokatua. 49 musikoz osatutako plantilla dauka eta orkestra honen lana kontzertu zikloak, bira nazionalak eta internazionalak, grabazioak, hezkuntza jarduerak eta musika zabaltzeaz arduratzen da. Kontzertu didaktikoen inguruan esperientzia zabala duten pedagogo musikalez osatua dago eta orkestra honek, berezko Hezkuntza Departamentua dauka. Haur eta gazteren hezkuntza musikalaren prozesuan

[9] https://explorable.com/es/investigacion-empirica-tik ateratako helburuak

parte hartzen du, helburu bezala haurrak, gazteak eta helduak emozionalki eragitea lortu nahi duelarik.

Hezkuntza Departamentuak hezkuntza proiektu osatu batean integratzen dituen jarduera anitz antolatzen ditu. Komunitateko sektore ezberdinei zuzenduta dago, 35.000 asistente baino gehiago batuz. Proposamen hauek plangintza zaindu batean eta orkestraren eta gizartearen beste instituzioen arteko kooperazioan oinarritzen da. Hala ere, gehienbat eskola zentroetan oinarritzen da, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, musika ikasleentzako, familientzako, helduentzat, eta orokorrean, publiko orokor bati zuzenduta dagoela. Guzti horientzat, kontzertu didaktikoak, entsegu irekiak, kontzertu familiarrak eta prestatze klaseak eskaintzen zaizkie, helburu eta eduki zehatzak dituztela. Hurrengo taulan, 2003/04 eta 2004/05 denboraldietan Orquesta Ciudad de Granadak bere jarduera hezitzaileetan izan zuen asistentzia ageri da.

Taula 2: Orquesta Ciudad de Granadako Hezkuntza Departamentuaren jardueren asistentzia[10]

	2003/04 denboraldia		2004/05 denboraldia	
	Saio kopurua	Asistente kopurua	Saio kopurua	Asistente kopurua
Kontzertu didaktikoak	24	23.800	24	25.409
Kontzertu familiarrak	8	9.163	5	6.350
Entsegu irekiak	11	2.704	10	2.500
Prestakuntza klaseak	11	291	9	150
Irakasletza formazio kurtsoak	8	281	9	270
Akademia gaztea	1	68	1	57
Urteko asistente	36.307		34.736	

[10] Profesorado, revista de currículum y formación del profesorado, 8 (1), 2004 La formación del profesorado y los conciertos didácticos. Victor Neuman.

kopurua		

Taulan ikus daitekeenez, Kontzertu Didaktikoei erreferentzia eginez, 2004/05 denboraldian, aurreko denboraldian baino 1.500 pertsona baino gehiago joan ziren. Asistenteen igotze nabariaren isla daukagu, ia %7arena. Honek Kontzertu Didaktikoek ikusleengan dituzten eragin positiboa erakusten digu. Azken batean, bi denboraldietan 24 kontzertu didaktiko eskaini ziren. 24 kontzertu guzti horien artean adin ezberdinetako jendeari zuzendutakoak zeuden eta ikusleak, hori eskertzen du, ikus daitekeenez. Beraz, garrantzitsua da zuzendutako publikoa nor izanen den jakitea, landuko diren edukiak publikoaren adinak ongi bereganatzeko. Azken batean, Kontzertu Didaktiko bakoitzak nortasun propioa daukala kontuan hartu behar da:

> "Cada concierto didáctico es diferente a los demás y tiene su propia "personalidad". En cada ocasión se escogen unas músicas distintas, se dirige a unos tramos de edad determinados, se persiguen unos objetivos didácticos diferentes, se plantean unas actividades en consonancia con los mismos… Pero, por encima de todo ello, cualquier concierto didáctico cumple un mismo Y último objetivo: sensibilizar hacia la escucha." (Concierto Didactico Once upon a time…Un mundo de percusión. OCD 2013-2014, 4)

Kontzertu familiarrei dagokienez, kopuru antzekoa antzeman daiteke. Bi denboraldietan saio kopuru ezberdinak eskaini zituzten, hala ere, proportzionalki aztertuz, asistente kopuru bera eman zen. Entsegu irekiak %8 jeitsi ziren 2004/2005 denboraldian. Jeitsierarik nabarbenena prestakuntza klaseetan ikus daiteke, %38.5ekoa dena. Irakasletza formazio kurtsoetan, bigarren denboraldian %7ko jeitsiera eman zen. Bestetik, akademia gazteak ere %17aren jeitsiera jasan zuen. Ikus daitekeenez igoera bakarra kontzertu didaktikoek izan zuten. Urteko asistente kopuruari osoari erreparatuz, bigarren denboraldian, %5a behera egin zuen.

2.2 La Pamplonesa bandaren kontzertu didaktikoa

Maiatzaren 4an Gayarre antzokian eskainitako *John Williams* kontzertu didaktikora joateko aukera izan nuen, John Williams konpositorea eta berak sortutako musika ezagutzeko aukera ikusle guztioi emanez.

Kontzertuan, adin guztietako ikuslegoa zegoela behatu nuen, bost edota sei urte zituzten haurretatik, hirurogei bai urte zituzten helduenetaraino iritsiz. Kontzertu didaktikoa, Lehen Hezkuntzako 3.ziklotik aurrerako - 9 eta 10 urte-ikuslegoarentzat zuzenduta zegoela sumatu ahal izan nuen. Zertan? Kontzertu didaktikoaren gidoiak haurrek ulertzen ez zituzten grazia anitz egiten zituen, eta jakina, grazia horiek, 5 urteko haurrek ulertzeko gaitasunik ez dute. Honetaz gain, azalpenak, heldu batek jarrai zezakeen luzera zuten. Haurren kasuan jarrita, ordea, luzeegia bilakatzen zitzaien. Bost urtetako haur hauek arreta galtzen hasten ziren, eserlekuetatik mugituz, edota gurasoen gainean eseriz, gurasoen arreta bereganatu nahian. Honetaz gain, kontzertuaren iraupena luzeegia zen adin hauetako haurrentzat (85 minutu inguru).

Kontzertua irudiekin lagunduta zegoen. Hau ikuslegoaren adina edozein izanda ere, ikuslegoak eskertzen duena da. Azken batean, kutsu berezia ematen dio, kontzertua entretenigarriagoa bilakatuz. Narratzaileak bitan aldatu zuen janzkera eta honek ere, inpaktu positiboa sortu zuen.

Narratzaileak publikoarekin behin baino gehiagotan elkarri eragin zuen: elkarrekin abesteko eskatuz, bi laguntzaile eskenatokira igotzeko eskatuz… Honek konfiantza sortzen zuen publikoan.

Kontzertu Didaktikoa behatu eta hausnartu ondoren, hiru ondorio atera nituen, nire proposamenerako aplikatuko ditudanak:

- Kontzertu Didaktikoa ikuslegoaren adinari egokitua egoteak erabateko garrantzia dauka
- Narratzaileak ikuslegoarekin elkar eragiteak ikuslegoaren sentsazio baikorrak sortzeko balio du
- Kontzertuaren iraupena adinari egokitua egotea

IRUDIA 2. *John Williams* Kontzertu didaktikoa Gayarre antzokian[11]

Honekin, ikerketa enpirikoak dituen helburuak betetzen nituela konprobatu nuen. Ikerketa zabala (marko teorikoaren azalpena) kasu zehatzarekin konbinatu nuen: Gayarre antzokian ikusitako kontzertu didaktikoarekin. Bestenaz, teoriaren garrantzia ingurugiro errealean konprobatu nuen. Marko teorikoan, kontzertu didaktikoen inguruaz mintzatzen naizenean, kontzertu didaktikoa diseinatzean zuzendutako publikoaren ezaugarriak kontuan hartu behar direla aipatzen dut. Hau, ingurugiro errealean lan eginez konprobatu ahal izan nuen. Behaketa beraz, aspektu bat baino gehiagotan zentratu zen, ikerketa sinpletasunetik haratago eramanez.

Guzti hau kontuan hartuta, nire proposamena egiteko balioko zait, orain ikusi ahal izanen den bezala.

[11] Aipatzeko, argazkiak ateratzeko baimena aldez aurretik eskatu eta eskaini zidatela

3.EMAITZAK ETA EZTABAIDAK

Atal honetan, aurreko atalean aipatutako metodoetan eta materialetan oinarrituz kontzertu didaktikoaren diseinua eginen da.

3.1 Kontzertu didaktikoaren diseinua

Oinarri teorikoa eskuratu ondoren eta kontzertu didaktiko batek ikasteko ematen duen aukera ezagututa, hezkuntzan toki bat merezi duela defendatzen jarraitzen dut, jakina. Egun, hezkuntza komunitate anitzetan aurkitzen den hezkuntza tradizionalaren gainetik igarotzeko doan baliabidea da. Era praktikoan haurrek ikasteko aukera dute oraingoan, ikaskuntza erabat esanguratsua eta beraientzat interesgarria bilakatzen den heinean.

Atal praktiko honetan, haurrentzat kontzertu didaktikoa diseinatuko da. Kontzertu pedagogiko honen entzunaldira haurrak joan aurretik, gelan hainbat jarduera lantzeko aukera izanen dute. Honek kontzertu didaktikoan aztertu eta bereganatuko dituzten edukiekin aldez aurretiko kontaktua edukitzeko balioko du, Haur Hezkuntzako haurren adinari egokituta garrantzitsua dena. Bestetik, irakasleak aurre ebaluaketa bat eginen du ere, ikasleen esperientzia musikala zein den ikusi ahalko duelarik. Kontzertu didaktikoan nolako helburuak beteko diren eta landuko dituzten edukiak aztertuko da, besteak beste. Gainera, irakasleak kontzertu didaktikoan bertan haur taldearen ebaluazio orokorra eginen du. Bukatzeko, Kontzertu didaktikoa ondoren, irakasleak amaierako ebaluazioa eginen du. Honetarako, gelan jarduera bat aurrera eramanen da.

Esperientzia musikal honetan Carl Orff hartuko da abiapuntutzat. Orffek bere metodoan[12] planteatzen zuena eta aurkezten zituen hainbat instrumentuen aurkezpena eginen da. Honetarako, bai gelan eta baita kontzertu beran ere haurrek guzti hau lantzeko aukera izanen dute.

Gogora dezakegun Orffek abiapuntu bezala erritmoa ezartzen zuela. Bidenabar, erritmoa gorputz perkusiotik hasi eta instrumentu zehatzetara bideratzen zuen. Hori dela eta, haurrek hurrengoa landuko dute:

- Gorputz perkusioaren lanketa erritmo ezberdinen bidez. Hau gelan kontzertu pedagogikora joan aurretik landuko dute.

[12] Birgogoratzeko ikus marko teorikoa

- Instrumentarium Orffen lau musika tresna. Aurkezpena, ezaugarriak eta hauen bidez hainbat erritmo ezberdinen lanketa.

3.1.1 Praktikara eraman aurretik

3.1.1.1 Testuingurua

Iruñerriko ikastetxe batean kokatuko den eta aurrera eramanen den proiektua izanen da, D ereduko ikastetxe publiko batean, hain zuzen ere. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko hirugarren mailako ikasleekin landuko da, 5 urteko haurrekin, alegia. Ikas taldea 24 neska mutilez osatua dago eta lan hau, gelako tutoreak eta eskolako musikako irakasleak bultzatuta gauzatuko da. Haurrek kontzertu didaktiko erreal bat bizitzeko aukera izanen dute. Hori dela eta, kontzertura joan aurretik, gelan kontzertuan ikusiko dutena eta landuko dituzten edukiak aldez aurretik landuko dituzte. Haur Hezkuntzako etapan, garrantzitsua da aldez aurretik etorkizun hurbil horretan (kontzertu didaktikoa, kasu honetan) ikusiko dutenarekin familiarizatzea. Haurren adina kontuan harturik, beraz, gelan hainbat jarduera aurrera eramanen dira. Aipatzekoa da aurre ebaluaziorako eta amaierako ebaluaziorako jarduerak *asanbladan* burutuko direla. Haur Hezkuntzan asanblada egiteak beraien artean hitz egiteko eta ideiak botatzeko eta elkarri trukatzeko balio du. Proiektu honen iraupena zehaztu ezina da. Hasiera zehatz daiteke, Kontzertu didaktikoaren entzunaldia ikusi baino bi-hiru aste lehenago. Hala ere, Kontzertu Didaktikoa ondoren, gai hau lantzen jarraitzeko aukera beti izanen dute (musikaren txoko berri bat sortuz, psikomotrizitate saioetan musikaren inguruko jarduerak eginez edota edota eduki zehatzen bat sakonkiago lantzen). Hori dela eta, proiektuaren amaiera, esan bezala, ezinen da zehaztu, proiektu irekia bilakatuz.

3.1.1.2 Gelan landuko diren jarduerak

Aurre ebaluaziorako balioko duen jarduera

1. Jarduera: Aurre ebaluazio jarduera

Azalpena

Jarduera honek haurrek duten esperientzia musikala irakasleak aztertzeko balioko du. Honetarako, haur taldea asanbladan kokatuko da, korruan.

Irakasleak, aldez aurretik haurrei egiteko hainbat galdera prestaturik edukiko ditu. Galderak sinpletasunetik konplexutasunerantz mailakaturik egonen dira:

- Musika gustuko duzue?
- Etxean musika entzuten duzue? Zein musika?
- Zein musika tresna ezagutzen eta gustuko duzue?
- Noizbait kontzertu batean egon zarete?
- Musikak zertarako balio duela uste duzue?

Galdera hauekin, irakasleak haurrek dituzten musika edukiak eta esperientzia musikala zein den ikusiko du, aurre ebaluaziorako baliagarria izanen dena.

Materiala

Jarduera honetarako haurrek ez dute materialaren beharrik izanen.

Helburu orokorrak

- Beren ingurua modu aktiboan aztertu, egoera eta gertaera esanguratsu batzuei buruzko interpretazioak egin eta horiek ezagutzeko interesa izateko gaitasuna.
- Sentimenduak, nahiak eta ideiak adieraztea bai ahozko hizkuntzaren bidez, bai bestelako hizkuntzen bidez, eta beren asmora eta egoerara hobekien egokitzen dena aukeratzea.
- Beste haurren eta helduen mezuak ulertu eta hizkuntzekiko jarrera positiboa izatea.
- Komunikazioko trebetasunak garatzea hizkuntza, adierazpide eta irudikapenerako bide desberdinetan.
- Bere gaitasun afektiboak garatzea.

Helburu didaktikoak

- Ikasleen aurre ezagutzak azaleratzea
- Esperientzia musikal propioen adierazpena egitea
- Musikak beraientzat garrantzirik duen erakustea

Edukiak

- Esperientzia musikalak

Ebaluazio irizpideak

Ebaluazioa kuantitatiboa eta kualitatibo izanen da. Kuantitatiboa, emaitza zehatzen bilketa egin ahalko delako. Bestetik, kuantitatiboa; honetarako irakasleak behaketa erabiliko duelako, oharrak bilduz. Aldez aurretik diseinatutako ebaluazio taula[13] bat izanen du, asanbladan daudela betetzeko aukera izanen duelarik.

Kontzertu didaktikoari lotuta, musika edukiekin kontaktua izateko balioko dituztenak

2. Jarduera: Gorputz perkusioaren lanketa

Azalpena

Haurrek euren gorputzekin soinu eta erritmo ezberdinak landiko dituzte. Honetarako, musikako irakaslearen parte hartzea emanen da. Ikas taldea bi taldetan banatuko da. Musikako irakasleak talde erdiarekin batera musikako gelara abiatuko dira. Bertan, gorputzarekin soinu ezberdinak ekoiztuko dituzte. Hau egin aurretik, musikako irakasleak Carl Orffen inguruko aipamena eginen die haurreri.

“Lagunak, badakizue? Carl Orff konpositore alemaniarra da. Berak erritmoa lantzea izugarri gustuko zuen. Orffek gorputz perkusioarekin hasi egiten zen erritmoa lantzen, guk orain eginen duguna. Ondoren, perkusiozko musika tresnekin erritmoa lantzen zuen ere. Musika tresnak kontzertu didaktikoan ikusiko ditugu, baina orain guk, gorputz perkusioa lantzeko aukera izanen dugu. Ongi iruditzen?” – Irakaslearen hitzak.

- Bularrean eskuarekin kolpatu.
- Txaloak egin
- Izterretan bi eskuekin kolpatu
- Mingaina eta ahosabaiaren arteko soinua egin

[13] Eranskina I

Soinu bakoitza behin baino gehiagotan errepikatuko dute. Pixkanaka, irakasleak soinu ezberdinak konbinatuz joanen da:

Bularra-bularra- txaloa-txaloa- bularra-bularra- txaloa-txaloa

2/2 erritmoa

Edota:

Izterra-izterra-ahosabaia-ahosabaia-izterra-izterra-ahosabaia-ahosabaia

2/2 erritmoa

Edota:

Txaloa-txaloa-txaloa-ahosabaia-ahosabaia-ahosabaia-txaloa-txaloa-txaloa

3/3 erritmoa

Irakasleak erritmo eta konbinazio ezberdinak sartzen joanen da pixkanaka. Erritmo ezberdinak sinpletasunetik konplexutasunera bideratuak egonen dira. Azkenik, lau soinu horiek beraien artean konbinatzen saiatuko dira.

Materiala

Jarduera honek ez du material zehatzaren erabilpenik eskatzen

Helburu orokorrak

- Beren ingurua modu aktiboan aztertu, egoera eta gertaera esanguratsu batzuei buruzko interpretazioak egin eta horiek ezagutzeko interesa izateko gaitasuna.
- Beren eta besteen gorputza eta ekintzarako ahalmenak ezagutzea eta desberdintasunak errespetatzen ikastea.
- Sentimenduak, nahiak eta ideiak adieraztea bai ahozko hizkuntzaren bidez, bai bestelako hizkuntzen bidez, eta beren asmora eta egoerara hobekien egokitzen dena aukeratzea.
- Bere gaitasun afektiboak garatzea.

Helburu didaktikoak

- Ahotsak eta gorputzaren atal ezberdinek sor ditzaketen soinuak ezagutzea
- Gorputz perkusioaren ezagutza ematea
- Carl Orff konpositorearen ezagupena bultzatu

Edukiak

- Gorputz perkusioarekin erritmo ezberdinak
- Gorputz perkusioaren koordinazioa
- Carl Orff eta bere ezaugarriak

Ebaluazio irizpideak

Musikako irakasleak behaketa erabiliko du baliabide gisa, emaitzak kualitatiboki jasoz. Emaitzak irakasleak beraren koadernoan apuntatuko ditu.

3. Jarduera: Lehenengo kontaktua instrumentuekin eta euren manipulazioa

Azalpena

Jarduera honetan, kontzertu didaktikoan landuko diren musika tresnak ezagutuko dituzte. Bidenabar, lehenengo kontaktua instrumentu horiekin izateko balioko zaie. Korruan kokatuko dira denak eseriak, eta irakasleak, banan-banan musika tresnak aurkeztuz joanen da: Xilofonoa, Güiroa, Triangelua eta Marakak.

Irakasleak, musika tresnen azalpen sinpleak eta zehatzak emanen ditu. Bestetik, haurrek galderak egiteko aukera izanen dute. Asanbladan bururutako jarduerek, sarritan, irakasleak zenbait galdera eta azalpen ez egitea eragiten du. Askotan, haurrek beraien artean hitz eginez erantzuna aurkitu egiten dute. Gerta daiteke ere, haurrek musika tresna ezagutzea, eta beraiek azalpena ematea. Jardueraren norabidea, beraz, egoera berak gidatuko du.

Gainera, haurrek musika tresnak manipulatzeko aukera izanen dute, banan banaz ukituz eta musika tresnek duten forma ezagutuz. Ikusteaz gain, musika tresna ukitzea esanguratsuago izanen da haurrentzat.

Materiala

Musika tresnak: xilofonoa, güiroa, triangelua eta marakak

Helburu orokorrak

- Beren ingurua modu aktiboan aztertu, egoera eta gertaera esanguratsu batzuei buruzko interpretazioak egin eta horiek ezagutzeko interesa izateko gaitasuna.

- Hizkuntza erabiltzea ikasi, irudikatu, komunikatu, gozatu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko; ahozko hizkuntza besteekin harremanetan egon eta bizikidetza erregulatzeko bide gisara baloratzea.

- Sentimenduak, nahiak eta ideiak adieraztea bai ahozko hizkuntzaren bidez, bai bestelako hizkuntzen bidez, eta beren asmora eta egoerara hobekien egokitzen dena aukeratzea.

- Beste haurren eta helduen mezuak ulertu eta hizkuntzekiko jarrera positiboa izatea.
- Bere gaitasun afektiboak garatzea.

Helburu didaktikoak

- Musika tresnak ezagutzea
- Musika tresnak manipulatzea

Edukiak

- Xilofonoa, güiroa, triangelua eta marakak
- Xilofonoak, güiroak, triangeluak eta marakek dituzten ezaugarriak ezagutu
- Xilofonoaren, güiroaren, triangeluaren eta marakak ukitu

Ebaluazio irizpideak

Behaketa kualitatiboa erabiliko du. Behaketaren ezaugarri nagusienak irakasle koadernoan apuntatuko ditu irakasleak.

4. Jarduera: Instrumentuak erritmo ezberdinekin jo

Azalpena

Jarduera honetan haurrek instrumentuak joko dituzte. Jarduera eskolako musikako irakaslearekin laguntzaz burutuko da. Jarduera hau egiteko, taldea

erditan banatuko da. Musikako irakasleak talde erdia beste gelara eramanen du instrumentuak jo dezaten. Jarduera hau talde txikian eginez gero, haur guztien parte hartzea emanen da, bide batez, denek musika tresnak jotzeko aukera izanen dutelarik.

Musikako irakasleak, musika tresnak gelatik sakabanatuko ditu. 12ko taldea, lau taldetxotan banatuko ditu, hirukoteak sortuz. Hirukote bakoitzak instrumentu batekin kokatuko da. Taldetxo bakoitzak denbora tarte jakin bat edukiko du musika tresna ukitzeko eta manipulatzeko.

Jarduera hau amaitzeko, instrumentuak erritmo ezberdinak landuz joko dituzte.

- Lehenengo, konstanteki kolpe lehorrak emanen dituzte instrumentu guztiek batera. Erritmoarekin jokatuko dute, abiadura bizkortuz eta motelduz. Xilofonoa jotzen dutenen kasuan, xafla bat hautatuko dute eta konstanteki xafla berdina joko dute.
- Instrumentu batzuek lehenego, eta ondoren besteek, txandakatuz, instrumentuak joko dituzte. Orden posible bat hurrengoa izan daiteke:
    - Güiroa hirutan jo
    - Triangelua hirutan jo
    - Marakak hirutan astindu
    - Xilofonoa hirutan jo (xafla berdina)

Materiala

Musika tresnak

Helburu orokorrak

- Beren ingurua modu aktiboan aztertu, egoera eta gertaera esanguratsu batzuei buruzko interpretazioak egin eta horiek ezagutzeko interesa izateko gaitasuna.
- Beren eta besteen gorputza eta ekintzarako ahalmenak ezagutzea eta desberdintasunak errespetatzen ikastea.
- Hizkuntza desberdinetan azaldutako arte lanak ezagutzen hasi eta teknika batzuk erabiliz irudikapen eta adierazpen artistikoko jarduerak egitea.

- Bere gaitasun afektiboak garatzea.

Helburu didaktikoak

- Musika tresnak manipulatu eta jo
- Musika tresnak zaindu eta kontu handiarekin erabili behar direla azaldu

Edukiak

- Musika tresnek duten soinua entzun, egiaztapen propioaren bidez.
- Musika tresnen erritmoa
- Musika tresnen aurreko errespetua

Ebaluazio irizpideak

Jarduera hau ebaluatzeko, prozesura kualitatiboa eta kuantitatiboa erabiliko da. Alde batetik, kualitatiboa izanen da irakasleak behaketa erabiliko duelako. Bestetik, kuantitatiboa izanen da irakasleak emaitza zehatzak apuntatzeko aukera izanen duelako. Hau, aldez aurretik diseinatutako behaketa taula[14] batean eginen du.

5. Jarduera: Instrumentuen soinuak entzunez, zein musika tresna den asmatu

Azalpena

Jarduera honetan, musika tresnek duten soinuarekin jolastuko dute, bai haurrek eta baita irakasleek ere. Honetarako, instrumentuen soinuez baliatuz, haurrek zein musika tresna den asmatu beharko dute. Irakasleak oihal beltza ipiniko du mahai baten gainean, atzeko aldea estaliz. Musika tresnak oihal beltz horren atzean kokatuko ditu, eta irakasleak hautatu nahi duen musika tresna hautatuz, jo eginen du. Haurrek, zein musika tresna jo duen asmatu beharko dute.

Materiala

Musika tresnak, mahaia eta oihala.

Helburu orokorrak

[14] Eranskina II

- Beren ingurua modu aktiboan aztertu, egoera eta gertaera esanguratsu batzuei buruzko interpretazioak egin eta horiek ezagutzeko interesa izateko gaitasuna.
- Hizkuntza erabiltzea ikasi, irudikatu, komunikatu, gozatu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko; ahozko hizkuntza besteekin harremanetan egon eta bizikidetza erregulatzeko bide gisara baloratzea.
- Bere gaitasun afektiboak garatzea.
- Komunikazioko trebetasunak garatzea hizkuntza, adierazpide eta irudikapenerako bide desberdinetan.

Helburu didaktikoak

- Musika tresna ezberdinen soinuak ezberdintzeko abilezia garatu

Edukiak

- Musika tresnen soinuak

Ebaluazio irizpideak

Jarduera honetan, irakasleak behaketa zuzenaren bidez emaitza kualitatiboak bere irakas kuadernoan zehaztuko ditu.

3.1.2 Kontzertu didaktikoaren diseinua

3.1.2.1 Ezaugarri nagusiak

Kontzertu didaktikoa 5 eta 6 urteko haurrentzat zuzendua egonen den emanaldia da, 25-30 minutu iraungo duelarik. Ikuskizunak haur talde osoa jasoko du. Kontzertua auzoko kultur etxeko aretoan burutuko da. Kontzertua bukatzean, haurrek narratzaile, musikari eta orkestrako zuzendariari galderak egiteko aukera izanen dute. Kontzertuan lau musika tresna aurkeztuko dira, guztiak perkusio familiakoak: Xilofonoa, Güiroa, Triangelua eta Maraka. Musika tresna hauek, Orff-ek bere metodoa azaltzeko erabiltzen zituenak ziren. Orffek perkusio instrumentuak erritmoaren bidez lantzen zituen. Kontzertu Didaktiko honetan, berak bere metodoan proposatzen zituen lau instrumentu aurkeztuko dira, esan bezala, euren artean erritmo ezberdinak batuz.

Musika tresnak aurkezteko, narratzaileak, ipuina erabiliko du baliabide gisa, ikusleen adinera egokitutako baliabide erakargarria.

Kontzertu didaktikoa eskainiko dutenen artean honakoak aurkitzen dira: narratzailea, musikariak, orkestraren zuzendaria eta teknikoak. Musikariak, zuzendaria eta narratzailea eskenatoki gainean kokatuko dira. Teknikariak, aldiz, ikuslegoaren atzean, argiak eta soinuak maneiatzeko. Instrumentu bakoitza behin egonen da errepikatua, narratzaile bakarra egonen delarik. Teknikari bat baino gehiago egonen da. Orkestrako zuzendaria ere, bakarra izanen da.

3.1.2.2 Apainketa

Eskenatokia

Eskenatokia oihal beltzez apainduta egonen da. Zabalera guztia kontuan hartuta, ezkerretik eskuinera, kolore ezberdinetako lau borobil handi jarriko dira, beraien artean banandurik egonen direlarik. Borobil hauek musikariak baino altuera garaiago batean egonen dira, ikusleek eserlekuetatik ongi ikusi ahal izateko. Narratzailearen atrila eskenatokiaren eskuin aldean kokaturik egonen da. Musikariak taldeka kokatuko dira. Ezkerretik hasita, Xilofonoa kokatuko da. Ondotik, Guiroa, honi jarraiki triangelua eta azkenik, maraka. Musika tresnen aurrean, tarima baten gainean, orkestraren zuzendaria aurkituko da.

Eskenatokian argi ezberdinak aurkituko dira. Honek balioko du kontzertura aurrera doan heinean, ikasleengan sentsazio ezberdinak sortzeko. Bestetik, musika tresna zehatz baten inguruaz mintzatzean denean, argitasuna musika tresna hauei zuzentzeko balioko da.

Eskenatokiak ez du bestelako apaindurarik izanen arrazoi garrantzitsu batengatik: kontuan hartu behar da ikusleak haurrak direla. Are gehiago, Haur Hezkuntzako etapako haurrak. Apaingarri anitz ezartzen badira, apaingarri guzti horiek estimulu bilakatzen dira beraientzat. Estimulu guzti horien aurrean haurrek arreta galtzeko erraztasuna bultzatuko luke. Hori dela eta, eskenatokiaren apaindura elementu askorik gabe apainduko da. Honek arreta narratzailean eta musika tresnetan jartzeko ahalbidetuko du. Azken batean, musika izanen baita protagonista nagusia.

Parte hartzaileak

Musikariak beltzez jantziko dira. Musika tresna ezberdinak daudela bereizteko, instrumentu mota bakoitza eramaten duten musikariek, kolore ezberdineko korbata bat eramanen dute. Xilofonoa jotzen duenak korbata urdin iluna, Guiroa jotzen duenak marroia, Triangelua jotzen duenak laranja eta Maraka jotzen dutenek more iluna. Kolore ilunak erabiliko dira aurretik aipatutako arreta haurrek ez galtzeko, kolore deigarriek arreta deitzen baitute. Kolore hauek, paretan zintzilik dauden borobil koloredun handiekin batera egokituak egonen dira.

Orkestra zuzendaria, trajez jantziko da. Eskuineko eskuan batuta izanen du, erritmoa markatzeko balioko duelarik. Ezkerreko eskua, musika tresnei momentu zehatzak markatzeko erabiliko du, honela, soinuen hasierak, amaierak eta ñabardurak zehaztuz. Zuzendariaren presentziak garrantzi handia du. Esan bezala, honek musikaren momentuak markatzen ditu. Honetaz gain, mugimendu, postura eta keinu anitz erabiltzen ditu. Hau guztiaren garrantzia aipamen honetan ikus daiteke:

> “Finalmente, los movimientos y las posturas del director de orquesta tambien tienen que vehicular la expresion, la emocion: todo lo que hace que la partirura se convierta en musica.” (Cómo hablar de música clásica a los niños, 2010, 75)

Narratzailea, arropa formalez jantziko da, edozein apaingarri jantzi ahalko duelarik (txanoren bat, kamixeta deigarriren bat edota bestelakorik).

3.1.2.3 Materiala

Kontzertu didaktikoa aurkezteko, eduki beharreko materiala hurrengoa da:

- Tokiari begira, eskenatokia.
- Oihal beltza zabal eta luzea, eskenatokiaren pareta izanen dena.
- Kolore ezberdinetako lau borobil handi.
- Eduki musikalei eta honekin lotutakoa;
  - Xilofonoa, güiroa, triangelua eta marakak (bana instrumentu).
  - Narratzailea
  - Musikariak
  - Zuzendaria

3.1.2.4 Kontzertu didaktikoaren helburuak

Helburu orokorrak[15]

- Haurrak musikarekin hunkitzea eta disfrutatzea.
- Haurrak musika zuzenean entzuteko aukera izatea; bidenabar, musikarenganako hurbilpena sustatzea.
- Adierazpen musikalak disfrutatzera eta baloratzera laguntzea.
- Entzumen ulerkorra, adierazpen eta inteligentzia musikala garatzea.
- Kontzertuetara maiztasun handiagoan joateko beharra sortzea eta sustatzea.
- Eduki musikal ezberdinak ezagutu eta arakatu: musika instrumentuak, gizakion ahotsak, zuzendariaren eta musikarien lana …)
- Ikuslegoari musikaren irudi desmitifikatua eta musikarien irudi hurbilagoa erraztea.

Helburu zehatzak

- Kontzertu didaktikoan aurkezten diren musika tresnak ezagutzea eta haiekin familiarizatzea.
- Perkusio familiako hainbat instrumentu eta horien ezaugarriak ezagutzea.
- Kontzertu didaktikoaren bidez musika sentitzera iristea eta haurrengan sentsazio ezberdinak sortzea.

Kontzertu Didaktikoa lantzean Curriculumean aurkitzen diren helburuak

- Sentimenduak, nahiak eta ideiak adieraztea bai ahozko hizkuntzaren bidez, bai bestelako hizkuntzen bidez, eta beren asmora eta egoerara hobekien egokitzen dena aukeratzea.
- Musika hizkuntzak errealitatea irudikatu eta komunikatzea ahalbidetzea
- Irudikatzeko bide horretaz baliatzeko gaitasuna pixkanaka handitzea, hezkuntzako helburu orokorretan erabiltzeko.
- Beren ingurua modu aktiboan aztertu, egoera eta gertaera esanguratsu batzuei buruzko interpretazioak egin eta horiek ezagutzeko interesa izateko gaitasuna.

[15] Revista Eufonía nº32 (2004) tik ateratako helburuak

- Hizkuntza erabiltzea ikasi, irudikatu, komunikatu, gozatu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko; ahozko hizkuntza besteekin harremanetan egon eta bizikidetza erregulatzeko bide
  gisara baloratzea.
- Bere gaitasun afektiboak garatzea.
- Komunikazioko trebetasunak garatzea hizkuntza, adierazpide eta irudikapenerako bide desberdinetan.

3.1.2.5 Edukiak

- Xilofonoa, güiroa, triangelua eta marakak
- Carl Orffen *Instrumentarium*-aren parte bat
- Aipatutako instrumentuen ezaugarri fisikoak
- Aipatutako instrumentuen ezaugarri musikalak
- Aipatutako instrumentuen arteko elkarreragina
- Aipatutako instrumentuen erritmo ezberdinak eta horien arteko lotura

3.1.2.6 Ebaluazio irizpideak

Irakasleak kontzertu didaktikoan bertan behaketan oinarrituko da ebaluatzeko. Irakasleak behatzen dituen jarrera eta jokabide nabarmenak ondoren irakaslearen koadernoan apuntatuko ditu.

3.1.2.7 Ipuina

"Duela urteak eta urteak gertatutako istorioa kontatuko dizuet oraingo honetan. Niri, behin, Carl Orffek kontatu zidan. Badakizue nor den?

Aspaldi aspaldian, zuen aiton amonak oraindik existitzen ez ziren garaian, lau instrumentu mota ezberdin haserre bizi ziren beraien artean. Zergatik haserretu ziren oraindik ez dakigu. Dakigun gauza bakarra, instrumentu bakoitza herri batean bizi zela zen.

Xilofonoak, herri batean bizi ziren (xilofonoaren soinua). Güiroak, beste herri batean (Güiroaren soinua), triangeluak beste batean (soinua) eta Marakak, laugarren herri batean (soinua).

Esan bezala, lau instrumentu mota hauek, beraien artean haserre zeuden. Zuek ba al dakizue zergatik? Hala ere, egun batean, zuen adina zuen xilofono bat, bere herrian egoteaz nazkatu egin zen. Bere buruari galdetu egiten zion: “Zergatik egon behar gara herri honetatik atera gabe? Nire lagun guztiak xilofonoak dira ni bezala, eta lagun berriak egiteko gogoa badut!” Azkenean, buruari eragin eta eragin ondoren, herritik abentura bila ateratzea erabaki zuen. (Xilofonoaren soinua). Hara! Uso zuriaren kanta. Ezagutzen duzue? Tira, Xilofonoari berriro jotzeko eskatuko diogu, baina oraingoan, denok abestuko dugu. Prest?

Udaberriko arratsalde batean irten zen gure Xilofonoa haren herritik. Ibili eta ibili ondoren, Güiroen herrira iritsi egin zen (Güiroaren soinua). Herriaren kanpoaldean, Güiro txiki bat aurkitzen zen. Xilofonoa, inolako zalantzarik gabe, harengana hurbildu egin zen:

-Aizu! Eta zu nor zara?- Galdetu zion Xilofonoak, txunditurik begiratzen zion bitartean.

-Ni Güiro naiz, eta hauxe da nire herria. Eta zu?

-Ni Xilofonoa naiz. Nire herritik irten egin naiz lagun berrien bila … Egia esateko, nahiko aspertuta nago betiko lagunekin jotzen egoteaz. Beti soinu berdinak sortu egiten ditugu, eta horrek, erabat aspertzen nau …

-Ni ere nazkatuta nago! - erantzun zion Güirok.- Baina zu… baina zu… oso arraroa zara. Edo arraroa baino, oso ezberdina. Oso ezberdinak gara elkarren artean… lagunak izan gaitezkeela uste al duzu?

-Jakina! Zer garrantzi du fisikoki ezberdinak izateak? Aurrean ditugun ikusle guzti hauek ere oso ezberdinak dira beraien artean… Begira, nik soinu zehatza dudan laminofonoa naiz.

-Lami… zer? – eten egin zion Güiroak, ez baitzuen hitz hori ulertzen.

-Laminofonoa bai, lamina edo xafla ezberdinez osatuta nagoelako. Xafla hauek, soinua ateratzen dute. Xafla bakoitzak, soinu bat dauka, eta badakizu zer? Egurrezkoa naizela! Soinua sortu nahi dudanean, nire besoak erabiliz nire gorputzean kolpatzen dut. Badakizu zer? Nire herrian, besoei, mazak deitzen diegu. Feltroz osatuak daude. Zera, zuk ulertzeko… Ilez osatuak. Eta nire inguruaz gehiago kontatuko dizut… Nik jotzeko dudan tinbrea, nahiko beroa da! Jotzen entzun nahi nauzu?

-Bai, noski! – erantzun zion Guirok.

Xilofonoaren abestia

-Zeinen goxo jotzen duzun, lagun! Ez nuen uste zu bezalako lagun berri bat ezagutuko nukeenik. Begira, zuk zure inguruaz hainbeste kontatu didazunez, nik ere nire inguruaz kontatuko dizut. Entzun nahi?

-Bai, mesedez! – esan zion Xilofonoak

- Ea, ni idiofono bat naiz.

-Idio… zer? –Eten egin zion Xilofonoak.

-Idiofonoa. Badakizu zergatik? Nire kaxaz soinua ateratzen dudalako, kordarik eta inolako partxerik gabe. Nire gorputza egurrez egina dago. Hala ere, nire arbasoak, kalabaza lehorrezkoak ziren hasiera batean. Gero, pixkanaka-pixkanaka, eboluzionatzen joan egin ginen. Ikusi-ikusi nire egurrezko gorputza… Eta badakizu zer? Jotzeko nik beso bakarra erabiltzen dut. Nire herrian baketa edo makila deitzen diogu, Hala ere, nire makila egurrezkoa da. Jotzen dudanean, segun eta nolako bizkortasunarekin kantatzen dudan, soinu laburragoak ateratzen ditut. Gustatuko litzaizuke ni entzutea?

- Noski, deseatzen nago, lagun.

Güiroaren abestia-erritmoa

-Aizu, zuk ere oso ongi jotzen duzu! Gustatuko litzaizuke abentura bila nirekin etortzea? Ezagutzen ez ditudan beste herri batzuk daude oraindik, eta egia esan, kuriositate handia dut horiek ezagutzeko.

-Jakina! Goazen!

Xilofonoa eta Guiroa abentura berrien bila abiatu ziren. Zuei abentura bila joatea gustatzen zaizue? Bidetik zabiltzatela, kantatu besterik ez zuten egiten. Lehendabizi batek kantatzen zuen (Xilofonoaren soinua) eta gero besteak (Güiroa). Elkarrekin abestera ere ausartu ziren, eta entzun ezazue nolako soinua lortzen zuten (bien arteko fusioa).

Maldan gora, maldan behera, basotik barna, zer topatu, zer topatu… Jakin nahi duzue zer topatu zuten? Beste herri bat ikusi zuten basoaren beste aldean. Inolako zalantzarik gabe, lagun berriak, herri hartara hurbiltzea erabaki zuten. Herrira hurbiltzen ari zirela, kanpoaldean instrumentu bat ikusi zuten, biek ezagutzen ez zuten instrumentu berri bat.

-Kaixo, nor zarete zuek? – galdetu zien triangelu batek (triangeluaren soinua)

-Ni Xilofonoa naiz, eta hau nire lagun berria da, Güiroa. Abentura eta lagun berrien bila gabiltza. Duela gutxi ezagutu garela, eta oso ezberdinak garela iruditzen duen arren, gauza bat baino gehiago ditugu komunean.

-Ni Triangelua naiz. Ikusten duzuenez, triangelu baten forma dut. Idiofonoa naiz, nire soinua nire burua kolpatzean lortzen dudalako, eta…

-Ni bezala orduan! Ni ere idiofonoa naiz- moztu zion Güiroak

-Benetan? Hara… hain ezberdinak gauza batzuetarako eta hain berdinak besteetarako. Tira, metalezkoa naizela ere ikusten da. Triangelu baten forma dudala esan dizuet, hala ere, nire gorputzaren iskina batean ebakidura bat dut, ikusi, ikusi…

-Eta zuk jotzea gustuko duzu? – galdetu zion Xifofonoak.

-Bai, izugarri gustatzen zait. Nik gainera, modu zorrotzean abestu egiten dut. Hala ere, nire soinua zehaztuta ez dagoela ere esan beharra dut, hori dela eta, nota zehatzak ezin ditut kantatu. Kantatzeko beso bakarra erabiltzen dut. Beno, nire herrian baketa edo makila deitzen diogu…

-Benetan? – erantzun zuen Güiroak

-Bai, zer bada? - Triangeluak

-Gure herrian ere horrela esaten diogulako gure besoei! – erantzun zion Güiroak.

-Zein kasualitatea… Hala ere, nire makila metalezkoa da, eta zurea egurrezkoa dela ikusten dut.

-Bai, arrazoi duzu.

-Nire gorputza jotzen dudanean, -jarraitu zuen triangeluak- ateratzen dudan soinua oso luzea da. Hala ere, segun eta nondik heltzen dudan nire gorputza, soinua luza edo moztu dezaket. Gustatuko litzaizueke ni jotzen entzutea?

-Bai, mesedez – erantzun zuten bi lagunek gogotsu.

Triangeluaren soinua

-Zeinen polit kantatzen duzun. Gustatuko litzaizuke gurekin batera ezagutzeko geratzen zaigun azken herrira etortzea? – Galdetu zion Güiroak.

Eta Triangeluak, inolako zalantzarik gabe, baietz erantzun zien. Hiru lagun berriak, azken herrirantz abiatzen ziren. Bidean, jotzen eta jotzen aritu ziren. Xilofonoa alde batetik, (soinua), Güiroa bestetik (soinua), triangelua bestetik (soinua), eta baita hiruen artean ere (hiruen arteko fusioa).

Maldan gora, maldan behera, basotik barna, zer topatu, zer topatu… Jakin nahi duzue zer topatu zuten? Beste herri bat ikusi zuten basoaren beste aldean. Hiruek herri hura ezagutzeko gogo izugarria zuten, hori dela eta, pixkanaka hurbilduz joan ziren. Herrira iristear zeudela, herriaren kanpoaldean instrumentu bat aurkitu zuten. Bakarrik zegoen, eta asper eginda zegoela erraz antzeman zitekeen. Hiru lagunak harengana hurbildu eta horietako batek zera galdetu zion:

-Kaixo! Bakarrik zaudenez, gurekin etortzea gustatuko litzaizuke? Abentura bila gabiltza. Lagun minak bilakatu egin gara denbora gutxian. – Esan zuen Xilofonoak

-Baina zuek… nortzuk zarete? – erantzun marakak.

-Ni Triangelua naiz, hauxe Güiro eta hirugarren hau Xilofonoa. Hiruok instrumentuak gara eta jotzea izugarri gustatzen zaigu. Zu nor zara?

-Ni maraka naiz (soinua). Hauxe nire herria da baina egia esateko aspertu xamar nabil azken denboraldian. Aspaldi ez nituela zuek bezalako instrumentuak ikusten.

-Guri ere berdina pasa zaigu. Hori dela, hemendik aurrera, momentu gehiago elkarrekin igarotzea erabaki dugu. Gainera, guri jotzea izugarri gustuko zaigu. Baina, aizu, kontaiguzu zerbait zure inguruaz…

-Begira, ni idiofono bat naiz.

-Zer diozu? Güiro eta ni ere idiofonoak gara! – eten egin zion triangeluak.

-Benetan? Orduan zuek ere zuen kaxaz ateratzen duzue soinua, ni bezala, alegia. Nire gorputzaren kanpoaldea zurezkoa dut, hala ere, plastikozkoak edo larruzkoak diren anai batzuk ditut ere. Gorputzaren barrena, aldiz, hutsa daukat.

-Eta orduan, nola jotzen duzu? Nola sortzen duzu soinua? –Galdetu zion xilofonoak.

-Hara, nire barrena hutsa izan arren, barruan, haziak ditut. Jotzeko beraz, nire gorputzari lotua dudan mangotik helduz, eta nire gorputza astinduz, soinua lortu egiten dut. Ikusi, ikusi!

Maraken soinua

-Oh…zeinen eder! – erantzun zuten Güiroak.

Halako batean, lagun guztiak Triangelua triste xamar jarri egin zela konturatu ziren.

-Zer duzu, lagun? –Galdetu zion marakak.

-Oso lagun onak bilakatu egin garela. Hala ere, guztiok dakigu, gure herrietako gainerako instrumentuak haserre daudela beraien artean.

-Bai, arrazoi duzu – erantzun zion Xilofonoak- Eta nik uste arazoa konpontzeko unea iritsi egin dela. Zer deritzozue, bihar arratsaldean, instrumentu guztiak

basoaren erdian elkartzen bagara, harremana sendotzeko eta gure ezberdintasunak alde batera uzteko?

-Ados nago. Hala ere, berdintasun batzuk ere ditugu, ez ahaztu. Guztiok jotzea gustuko dugu. Gu denok musika sortzen dugu, eta gu lauetatik, hiru, idiofonoak gara. Ez al duzue uste kasualitate gehiegi dela? – aipatu zuen triangeluak.

-Bai. Eta gehiago kontatuko dizuet. Duela egun batzuk, nire herrian zegoen sekretu bat zabaldu egin zen. – Esan zuen marakak. – Guztiok, familia bat osatzen dugu. Familia handi bat. Guztiok perkusiozko instrumentuak gara!

Lau lagunek instrumentu guztiak biltzar handi batean bildu ondoren, arazoa konpondu eta haserrea pasa egin zitzaien. Ordutik aurrera, herri ezberdinetako instrumentu guztiak lagun min bilakatu ziren, eta dena gure lau protagonistei esker. Jaialdi bat antolatzea erabaki zuten. Bertan, instrumentu guztiek elkarrekin jotzen zuten. Entzun nahi duzue?

Lau instrumentuen arteko melodia

Azken batean, lau instrumentu hauek, familia handi baten parte ziren: perkusiozko instrumentuen familiakoak.”

Ipuinaren ezaugarriak

Ikus daitekeenez, ipuinean perkusiozko lau musika tresna hauen aurkezpena egiten da, euren ezaugarriak azalduz. Honetaz gain, musika tresna bakoitzaren soinua entzuteko aukera ikusten da. Gainera, Xilofonoak melodia jo dezakeen instrumentu bakarra dela kontuan hartuta, honeri atxikituta, lau musika tresnak abestia jotzeko koordinatzen dira.

Xilofonoak jotzen duen melodia “Uso zuriaren”[16] kantarena da. Kanta hau oinarri hartuta, güiroak erritmo jakin bat hartuko du kantari egokituta egonen dena. Triangeluak eta marakak gauza bera eginen dute. Horrela, kantaren melodia entzuten den heinean, beste hiru instrumentuek erritmo jakin bat hartuta, kantak armonia eta oreka edukiko du.

[16] Eranskina III

Güiroak, triangeluak eta marakek jarraituko duten erritmoa eranskineko partituretan[17] ikus daitezke.

Uso Zuriaren kanta ikusleek abesteko aukera izanen dute, musikariek jotzen duten bitartean.

3.1.3 Kontzertu didaktikoa ondoren

3.1.3.1 Amaierako ebaluazio jarduera

Kontzertu didaktiko ondoren, irakasleak amaierako ebaluazio bat egiteko azken jarduera bat aurrera eramanen du.

Azalpena

Azken jarduera hau asanbladan burutuko dute. Irakasleak, aurre ezagutzak neurtzeko egin zuen bezala, oraingoan, haurrei hainbat galdera planteatuko die:

- Gustatu zaizue kontzertu didaktikoan ikusitakoa?
- Zer da gehien gustatu zaizuena?
- Zein musika tresnak agertzen ziren kontzertuan?
- Oroitzen zarete zein familiakoak ziren musika tresna guztiak?
- Gustura sentitu zarete?

Materiala

Jarduera honetarako ez da materialaren beharrik egonen

Helburu orokorrak

- Beren ingurua modu aktiboan aztertu, egoera eta gertaera esanguratsu batzuei buruzko interpretazioak egin eta horiek ezagutzeko interesa izateko gaitasuna.

[17] Eranskinak IV, V eta VI

- Hizkuntza erabiltzea ikasi, irudikatu, komunikatu, gozatu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko; ahozko hizkuntza besteekin harremanetan egon eta bizikidetza erregulatzeko bide gisara baloratzea.

- Sentimenduak, nahiak eta ideiak adieraztea bai ahozko hizkuntzaren bidez, bai bestelako hizkuntzen bidez, eta beren asmora eta egoerara hobekien egokitzen dena aukeratzea.

- Beste haurren eta helduen mezuak ulertu eta hizkuntzekiko jarrera positiboa izatea.
- Hizkuntza desberdinetan azaldutako arte lanak ezagutzen hasi eta teknika batzuk erabiliz irudikapen eta adierazpen artistikoko jarduerak egitea.

Helburu didaktikoak

- Kontzertu didaktiktikoaren esperientziak azaleratzea
- Esperientzia musikalak pertsonalki sortutakoa adieraztea

Edukiak

- Esperientziak
- Sentsazioak
- Sentimenduak

Ebaluazio irizpideak

Irakasleak behaketa taula[18] bat diseinatuko du honetarako. Gainera, Kontzertu Didaktikoen helburuak bete diren edo ez egiaztatzeko beste taula [19]bat beteko du.

3.1.3.2. Dokumentazioa

Ikerketa mota hauetan dokumentazioaren presentziak garrantzi handia du. Dokumentazioaz ari garenean, bideoez eta argazkiez baliatuz, lortzen dugun azken emaitza da. Azaldu berri diren jarduera hauetan, musikako irakasleak edota haur taldearen tutoreak jarduerak burutzen diren heinean argazkiak aterako edota jarduerak berak grabatuko ditu.

[18] Eranskina VII
[19] Eranskina VIII

Dokumentatzeak, beraz, jarduerak amaitzean irakasleak berriro behatzeko aukera izanen du argazkietan edota bideotan oinarrituz. Modu honetan, irakasleak gelan jokabide edo jarrera nabarmenen bat galdu badu, dokumentazioak aurkitzeko aukera emanenen dio berriro.

Bestalde, haurrekin dokumentazio hura elkarbanatzeko aukera ematen digu. Argazkiak, irakasleak aztertzeaz gain, haurrek ere argazki horien azterketa egin dezakete. Demagun haur batek marakak posizio txarretik hartu dituela. Argazkiak hori azalerazten badu, haurrei musika tresna modu egokian hartu den edo ez galdetzeko aukera egonen da. Honek haurrak konturatzeko balioko du. Gauza bera egin ahalko da bideoek edota beste argazkiek islatzen dutenarekin.

Dokumentazioak haurrek interesa duten, eroso sentitzen diren eta jarduera hauekin gustura sentitzen diren ikusteko ere balioko du, bai irakasleei eta baita haurrei ere.

CONCLUSIONES Y CUESTIONES ABIERTAS

A lo largo de este trabajo, he podido observar la importancia que desata la educación musical desde edades tempranas. Gracias a diferentes investigaciones, hoy en dia se reconoce la música como recurso efectivo a la hora de trabajarlo con los niños y niñas. A pesar de esta afirmación, la música continúa teniendo un gran vacío en nuestros centros educativos, ocupando un lugar desmerecido.

Lo primero que quiero recalcar tras haberme centrado en este ámbito de la educación musical es su importancia. La etapa de Educación Infantil es la etapa donde los niños y niñas desarrollan los mayores cambios en su desarrollo global. Por ello, es imprescindible tener en cuenta los aspectos que pueden favorecer al niño y niña. Partiendo de aquí, disponemos de la música como recurso para desarrollar sus capacidades, tanto intelectuales, como emocionales y sociales. Siendo conscientes de todo esto, ¿por qué no es trabajado? Si de verdad buscamos un desarrollo integral de las personas, ¿cuál es el motivo de no llevarlo a la práctica? Creo y he podido comprobar que, muy a mi pesar, la educación musical sigue sin ser valorada, ya que, generalmente, la educación se centra en asignaturas de mayor instrucción, y en asignaturas denominadas troncales.

Asimismo, he podido comprobar que una forma enriquecedora de trabajar la música en estas edades es mediante los conciertos didácticos. Este trabajo me ha servido para profundizar y para reflexionar sobre dichos conciertos. Por un lado, gracias al carácter de los conciertos pedagógicos, poseen la capacidad de atraer la atención de los niños y niñas, envolviéndolos en el mundo musical. Por otro lado, influye directamente en el desarrollo personal de la persona, creando nuevas sensaciones y haciendo expresar diferentes sentimentos. Por ello, estaremos cumpliendo satisfactoriamente unos objetivos esenciales de esta etapa educativa.

He podido comprobar que diseñar un concierto didáctico requiere una planificación previa, unos objetivos que concretar y unos contenidos que elaborar para posteriormete trabajarlos. Debo destacar que para ello, no necesitamos ser artistas o compositores de alta gama. Siendo educadoras o

educadores, y a su vez, teniendo la motivación de impartir una adecuada educación, basada en las motivaciones y en los intereses propios de los niños y niñas, podemos conseguirlo. También creo, que para ello, las y los docentes debemos tener una formación mínima en educación musical. Lamentablemente, esta formación ha estado cuasi ausente en los cuatro años del Grado de Magisterio en Educación Infantil, como he podido comprobar. Pero dirijámonos a formaciones anteriores para profundizar la valoración. En la Educación Intantil, los y las niñas no tienen la oportunidad de trabajar la música, a no ser que vaya insertada en algún proyecto educativo o que sea inculcado por la profesora o por el profesor. En Educación Primaria, la asignatura de la música se trabaja una hora en toda la semana (sin contar, que tras la aprobación de la LOMCE, la música pasa a ser asignatura optativa), en Educación Secundaria Obligatoria dos, y en el Bachillerato, continúa siendo asignatura optitiva. He podido observar, y por lo tanto, concluir, que la formación musical no tiene lugar en nuestras aulas.

Como futura docente, este Trabajo de Fin de Grado me ha servido para concienciarme sobre la importancia de esta materia. Además, un trabajo como este me ha permitido reflexionar profundamente sobre la educación musical. Siempre he defendido la educación emocional como prioridad a la hora de trabajarlo en esta etapa, como he explicado en los comienzos[20] de este trabajo. Y una manera significativa para hacerlo es mediante la educación musical.

Actualmente, nos encontramos en una delicada situación socio-económica, atacada por una crisis que está generando daños en ámbitos como la educación, la cultura, la sanidad y la sociedad en si. Asimismo, la influencia de la crisis ataca al ámbito personal directamente, creando angustia y situaciones compliacadas para miles y miles de ciudadanos. Ahora, más que nunca, debemos resaltar la importancia de esta educación, la educación basada en las emociones, basada en la atención de las personas desde los primeros años de vida. Partiendo de esta base, iremos creciendo significativamente, de tal manera que afrontaremos futuros problemas con mayor facilidad, adquiriendo actitudes que nos enriquecerán personalmente.

[20] Antecedentes del Trabajo de Fin de Grado

Llegado a este punto, ¿cambiará la concepción sobre esta disciplina? ¿Adquirirá su merecido lugar en el sistema educativo? ¿Se utilizarán recursos adecuados para trabajarlo? Espero, sinceramente, que en una futura investigación pueda desarrollar un tema como el que tenemos aquí presente concluyendo y destacando con la buena posición de la educación musical en el sistema educativo.

Permítanme dar por finalizado este trabajo, citando una adecuada, clara y concisa cita del gran maestro Suzuki:

> "Si yo pudiera, haría que la educación dejara de ser un asunto de pura instrucción para transformarla en una educación en el sentido real de la palabra; una educación que inculcara y pudiera extraer y desarrollar todo el potencial humano, sobre la base de la vida del niño en su proceso de crecimiento. Es por esta razón que dedico todos mis esfuerzos a la Educación del Talento: un niño deviene justamente en aquello para lo cual fue educado. Elevo mi plegaria para que todos los niños y niñas del planeta lleguen a desarrollarse como seres humanos buenos, felices y con capacidades superiores, y por eso dedico todas mis energías a hacer que eso ocurra, pues estoy convencido de que todos han nacido con esta promesa." (Eufonía, Educación musical temprana hasta los 4 años, 2013, 55[21])

[21] ISA webgunetik ateratako aipamena.

ERREFERENTZIAK

- 23/2007 FORU DEKRETUA, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculuma
- Aguilar, M.C. (2002) *Aprender a escuchar música*. Madrid. Machado Libros.
- Aracil, A.; Carrasco, M.; Casares, E.; Catalan, T., Cortes, M., Cureses M.; Diez M.; Gonzalez, J.A; Manchado, M.; Martin, A.; Morales, Mª I; Morfakidis, M; Perez, D; Sanchez, J.M (2009) *Papeles del festival de música de Cádiz. I jornadas sobre conciertos.* [Eskuragarri 2013/5/5 http://www.centrodedocumentacionmusicaldeandalucia.es/export/sites/default/publicaciones/pdfs/conciertos-didacticos-2.pdf]
- Barbarroja, M. J (2009). La música en la educación infantil. *Revista Digital Innovación y experiencias educativas,* 14. [Eskuragarri 2013/04/20 http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_14/JANET_BARBARROJA_1.pdf]
- Céspedes, A. (2008) *Educar las emociones. Educar para la vida.* Santiago de Chile. Ediciones B GRUPO ZETA
- Charvet, P. (2010) *Cómo hablar de musica clasica a los niños*. Donostia. Nerea
- Díaz, M., Giráldez, A. Alcalá Mellado, J.R. (2003) *Investigación cualitativa en educacion musical.* Barcelona. Graó
- *Elliot, D. (1995): Music Matters: A New Philosophy of Music Educacion.* New York. Oxford University Press.
- *Escudero, Mª P. (1988): Educación musical, rítmica y psicomotriz.* Madrid. Real Musical.
- *Eufonia nº28 (2003) La música en el aula ¿y ahora…? Barcelona. Grao*
- Eufonia nº 32 (2004*) Audiciones escolares.* Barcelona Grao

- *Eufonia nº 34 (2005) Psicopedagogía y educación música. Barcelona, Grao.*

- *Eufonia Nº 59 (2003) Didactica de la Musica. Educacion musical temprana hasta los 4 años.* Barcelona Grao

- Gardner, H (1994) *Educación artística y desarrollo humano*. Barcelona. Paidós Educador

- Goleman, D.; (1996) *Inteligencia Emocional*. Barcelona. Kairós
- Hemsy de Gainza, V.; (1993) La educacion musical frente al futuro. Buenos Aires. Guadalupe
- Hemsy de Gainza, V. (2002). *Pedagogía Musical. Dos decadas de pensamiento y accion educativa.* Buenos Aires. Lumen SRL

- *Juídias, J., Dominguez, M. (2001) Cuerpo de maestros. Educación musical. Sevilla. Mad*

- *Kabalevsky, D. (1988): Un compositor habla de la Educación Musical. Barcelona. Teide*

- Longueira Matos, S. (2011) *Adquisición de competencias a través de la educación musical. Aproximación al desarrollo de la responsabilidad y la autonomía en la educación general.* Universitat de Barcelona

- Malagarriaga, T. (2003) *La audicion musical en la Educacion Infantil.* Barcelona. Ceac

- Martin Vivaldi, N. (2013). *Concierto didáctico. Once upon a time… Un mundo de percusión.* Orquesta Ciudad de Granada [Eskuragarri 2013/5/13 https://docs.google.com/file/d/0B0xRMXaLAZUTTloyRkpiUFBtdm8/edit?pli=1]

- Neuman, V. (2004). *La formación del profesorado y los conciertos didácticos. Universidad de Granada* [Eskuragarri 2013/5/1 http://www.ugr.es/~recfpro/rev81ART6.pdf]

- Neuman, V. (2004) *Los conciertos didácticos para escolares*. Revista Eufonía nº 31. Barcelona. Grao

- Palomares, J., Roldán, G. (1998) *Los conciertos didácticos. XXVIII cursos Manuel de Falla: 46 festival Internacional de musica y danza de Granada.* Granada. Granada: J. Palomares: G. Roldán Herencia

- Pastor, P (2013) *Educación musical temprana hasta los 4 años.* Eufonía. Didáctica de la Musica. Barcelona. Grao

- Perez, J. (2013) *Hacia una educación musical para el futuro: el concierto didáctico.* LEEME Revista de la Lista Europea de Musica en la Educación. Conservatorio Cristóbal de Morales. Sevilla. [Eskuragarri 2013/5/20 http://musica.rediris.es/leeme/revista/perez03.pdf]

- Rodriguez, C. (2002) *La enseñanza de la música es clave en el desarrollo integral del niño.* Diario El Mercurio, Chile [Eskuragarri 2013/04/29 http://web.uchile.cl/facultades/artes/mcdp/tmp/desarrollointegral.html]

- Suzuki, S., Suzuki, W., & Lpez, E. G. (2004). *Educados con amor: el método clásico de la educación del talento*. Alfred Music Publishing.

- *Willems. E. (1984) Las bases psicologicas de la educación musical.* Buenos Aires. Editorial Universitaria de Buenos Aires, (original en francés, 1956)

- Willems, E. (2002) *El valor humano de la educacion musical.* Barcelona. Pidós

ERANSKINAK

Eranskina I Aurre ebaluazio taula

AURRE EBALUAZIORAKO JARDUERAREN EBALUAZIO TAULA		Bai	Ez	Oharrak/Ekarpenak
Musika gustuko duzue?	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Etxean musika entzuten duzue? Zein musika?	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Zein musika tresna ezagutzen eta gustuko duzue?	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Noizbait kontzertu batean egon zarete?	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Musikak zertarako balio duela uste duzue?	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			

Eranskina II Ebaluazio taula

4. JARDUERAKO EBALUAZIO TAULA		Bai	Ez	Oharrak/Ekarpenak
Musika tresnak jotzen dituzte	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Musika tresnarekin erritmoa zehazten dute	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Musika tresnaren aurrean interesa erakusten dute	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Erritmoarekin batera koordinazioa erakusten dute	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Musika tresnak zaintzen dituzte	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			

Eranskina III Xilofonoaren partitura/ Uso zuria partitura



Eranskina IV Güiroaren partitura



Eranskina V Triangeluaren partitura



Eranskina VI Maraken partitura



Eranskina VII Kontzertu didaktikoaren helburuak bete diren egiaztatzeko taula

KONTZERTU DIDAKTIKOAREN HELBURUAK		BETE DA	EZ DA BETE	Oharrak/Ekarpenak
Haurrak musikarekin hunkitzea eta disfrutatzea.	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Entzumen ulerkorra, adierazpen eta inteligentzia musikala garatzea.	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Eduki musikal ezberdinak ezagutu eta arakatu: musika instrumentuak, gizakion ahotsak, zuzendariaren eta musikarien lana …)	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Kontzertu didaktikoan aurkezten diren musika tresnak ezagutzea eta haiekin familiarizatzea.	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Perkusio familiako hainbat instrumentu eta horien ezaugarriak	1.			
	2.			
	…			
	23.			

ezagutzea.	24.			
Kontzertu didaktikoaren bidez musika sentitzera iristea eta haurrengan sentsazio ezberdinak sortzea.	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			

Eranskina VIII Kontzertu didaktikoaren ondorengo jarduera

Kontzertu didaktikoaren ondorengo jarduera		Bai	Ez	Oharrak/Ekarpenak
Gustatu zaizue kontzertu didaktikoan ikusitakoa?	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Zer da gehien gustatu zaizuena?	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Zein musika tresna ezagutzen eta gustuko duzue?	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Zein musika tresnak agertzen ziren kontzertuan?	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			

Oroitzen zarete zein familiakoak ziren musika tresna guztiak?	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			
Gustura sentitu zarete?	1.			
	2.			
	…			
	23.			
	24.			

ERANSKINA IX JARDUEREN HELBURUEN ETA EDUKIEN ARTEKO LOTURA

	JARDUERAK	HELBURUAK	EDUKIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
AURRE EBALUAZIORAKO JARDUERA	1. Jarduera: Aurre ebaluazio jarduera	Ikasleen aurre ezagutzak azaleratzea Esperientzia musikal propioen hausnarketa egitea Musikak beraientzat garrantzirik duen erakustea	Esperientzia musikalak	Ebaluazio taula
	2.Jarduera:Gorputz perkusioaren lanketa	Gorputzaren atal ezberdinek sor ditzaketen soinuak ezagutzea Gorputz perkusioaren ezagutza ematea	Gorputz perkusioaren erritmo ezberdinak Gorputz perkusioaren koordinazioa	Behaketa. Irakasle koadernoa

GAIAREKIN FAMILIARIZATZEKO ETA LEHENENGO KONTAKTUA EDUKITZEKO JARDUERAK		Carl Orff konpositorearen ezagupena bultzatu	Carl Orff eta bere ezaugarriak	
	3.Jarduera:Lehenengo kontaktua instrumentuekin eta euren manipulazioa	Musika tresnak ezagutzea	Xilofonoa, güiroa, triangelua eta marakak. Xilofonoak, güiroak, triangeluak eta marakek ezaugarriak	Behaketa. Irakasle koadernoa
		Musika tresnak manipulatzea	Xilofonoaren, güiroaren, triangeluaren eta marakak ukitu	
	4.Jarduera:Instrumentuak erritmo ezberdinekin jo	Musika tresnak manipulatu eta jo	Musika tresnek duten soinua entzun, egiaztapen propioaren bidez. Musika tresnen erritmoa	Behaketa taula

		Musika tresnak zaindu eta kontu handiarekin erabili behar direla azaldu	Musika tresnen aurreko errespetua	
	5.Jarduera:Instrumentuen soinuak entzunez, zein musika tresna den asmatu	Musika tresna ezberdinen soinuak ezberdintzeko abilezia garatu	Musika tresnen soinu zehatzak	Behateka. Irakasle koadernoa
Kontzertu didaktikoa ondorengo jarduera	Amaierako ebaluazio jarduera	Kontzertu didaktiktikoaren esperientziark azaleratzea	Esperientziak	Behaketa taula
		Esperientzia musikalak pertsonalki sortutakoa adieraztea	Sentsazioak Sentimenduak	

ERANSKINA X *John Williams* kontzertu didaktikoaren esku programa

LA PAMPLONESA EN EL GAYARRE 2014

CONCIERTO DIDÁCTICO CON OBRAS DE JOHN WILLIAMS

DOMINGO 4 MAYO 12:00

DL NA 612-2014

'John Williams en persona' nos acercará al proceso creativo de la música para películas, música descriptiva adaptada tanto a la acción cinematográfica como a las características de cada uno de los personajes. Utilizando las bandas sonoras de películas que le han hecho ser considerado como uno de los mejores compositores del género *(ET, Indiana Jones* y *La guerra de las galaxias)*, nos explicará asímismo su particular visión sobre algunos elementos que determinan toda obra musical tales como altura, intensidad, tempo, compás...

■ LUIS Mª SAN MARTÍN URABAYEN

Entre los más cinéfilos no hay duda de que el neoyorquino John Williams (1932) es el compositor más importante que ha dado la larga lista de autores que han puesto música a las escenas más famosas del séptimo arte. Fue el compositor judío-italiano Castelnuovo Tedesco (1895-1968) quien le enseñó al joven e impulsivo Williams los secretos de la composición y la interpretación. Su primer contacto con las bandas sonoras fue en 1956, con la teleserie *Playhouse 90*, cuya música compuso y en la que pudo verse a Jack Palance encarnando a Manolete en su trágica muerte. A partir de entonces su contacto con el género audiovisual fue constante, agregando elementos estilísticos, experimentando y puliendo una línea musical que tardaría una década en concretar definitivamente. En la TV se hicieron famosas sus partituras para *El Virginiano* (1962), *Viaje al fondo del mar* (1964) y *La isla de Gilligan* (1964). No obstante, fue en el cine donde logró mayor renombre con trabajos como *Caminos secretos* (1961), *El señor de Hawai* (1962), *Los rateros* (1969), *Alma rebelde* (1970), *Loca evasión* (1974), *El coloso en llamas* (1974), *Tiburón* (1975) y muchos más. Sus trabajos al margen del cine le uniría a la Boston Pops Orchestra, una de las orquestas sinfónicas más populares de los Estados Unidos. Fue su director durante cuatro años y con ella grabó 35 discos, entre los que destaca un volumen de marchas de John Philip Sousa (1854-1932). La influencia de este estilo musical en sus creaciones es evidente, principalmente en sus fanfarrias olímpicas y en alguna que otra marcha de sus bandas sonoras.

Su fama fue en aumento a partir de su prolongada colaboración con el genio del cine Steven Spielberg, con títulos como *La guerra de las galaxias* (1977), *En busca del Arca perdida* (1981) y *E.T., el extraterrestre* (1982), entre otros muchos. Estas tres obras representan al resto de obras maestras de Williams y serán las que hoy escucharemos. Su estilo compositivo recoge influencias de los grandes maestros post-románticos como Richard Strauss, por su gran orquestación y por el uso de temas asociados a cada personaje o momento de la acción. El famoso *leit-motiv* que Wagner desarrolló hasta el extremo. Hoy en día asociamos a un tema personajes como Darth Vader, objetos como el arca perdida, animales como el tiburón o lugares y paisajes como en Star Wars. Ello no implica que su música deje de ser deliciosa y de una belleza extraordinaria. Es precisamente en la perfecta relación música-escena por lo que a Williams se le conoce y se le admira.

La lista de películas para las que ha puesto música es inabarcable en estas líneas y sigue en aumento. Entre sus últimos trabajos están *Las aventuras de Tintín* (2011), *War Horse* (2011), *Lincoln* (2012) y *La ladrona de libros* (2013). Junto a ellas, la lista de obras al margen del cine –también larga y menos conocida– sigue creciendo. John Williams sintetiza en su carrera la historia contemporánea de la música de cine. Es el compositor más reconocido de esta especialidad. El público ha hecho que algunas ediciones de sus obras sean auténticos éxitos de ventas, sólo equiparables a los obtenidos por los grandes grupos de rock. Junto a su reconocimiento general a través de sus 5 premios Oscar y 48 nominaciones, Williams también ha destacado en la composición de partituras para diversos juegos olímpicos: Olympic Fanfare and Theme (Los Ángeles 1984), The Olympic Spirit, (Seúl 1988), Summon the Heroes (Atlanta 1996) y Call of the Champions (Salt Lake City, 2002)

A través de este concierto didáctico tendremos la ocasión de conocer 'en persona' a John Williams, así como a ver y a escuchar algunas de las escenas y músicas más conocidas de la historia del cine. Todo esto y muchas sorpresas que no se pueden desvelar, pero que seguro que hará disfrutar mucho a todos los aquí presentes.

PROGRAMA

E.T. el extraterrestre
Indiana Jones
Star Wars

MONTAJE Y REALIZACIÓN VISUAL
Álvaro Díaz

JOHN WILLIAMS
Rubén Velasco

DIRECCIÓN
Jesús Garisoain

PRÓXIMO CONCIERTO
THE PUB IBILTARIA
LA PAMPLONESA Y OSKORRI
Domingo 25 de mayo, 18:00
Teatro Gayarre